

Eskoletako jantokiak, guraso elkarteen esku?

DURANGALDEA | Eusko Jaurlaritzak aldaketa bat dakar eskola jantokietara: guraso elkarteek euren kabuz gestionatu ahal izatea jantokietako zerbitzu osoa. Politikarien eta eragileen artean garatutako batzorde baten emaitza da. Baina bertan iritzia eman duen plataforma batek, Berton Bertokoak, ez du begi onez ikusi aukera

hori. Jantokien ardura guztia “gurasoei bizkarreratzea” dela kritikatu dute kideek, eta “eskuak garbitzeko nahia” ikusi dute Jaurlaritzaren erabakian. Urte bitik gora daramate eredu malguago bat eskatzen, atxikimenduak batzen eta ekintzak lantzen, beheko irudian ageri den plantoa lez, Atxondon egindakoa. • 4. orrialdea



“Aurten errepideko pare bat lasterketa lehiatuko ditut Bizkaia-Durango taldeagaz”

Irene Loizate Sarrionandia
Bizkaia-Durango txirrindularia

Txirrindularitza | Durangoko duatleta gazteak Bizkaia-Durango eskaintza onartu eta errepideko txirrindularitza probatuko du aurten. Pare bat lasterketatant aritzeko asmoa du, zelan moldatzen den ikusteko. • 27. orrialdea



L.E.


Kultura herritik eta herriarentzat zabalduz

Zornotza Aretoak 25 urte bete ditu eta herriko Markeliñe antzerki taldeak, oster, 35. Zornotzan kultura bultzatzen dabilen eragile biek lotura estua dute gainera. Luisja Ugarte aretoaren arduraduna izandakoak eta Joserra Martinez Markeliñeko aktoreak ibilbide horren inguruko gogoeta egin dute. • 2-3



Lenox Elorriaga

San Antonio jaiak - Berriz



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO • Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerriarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA:

Urtarrilaren 15etik otsailaren 1era
Matrikula egiteko ordutegia: Astelehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiralean: 09:00-13:00

“Homogeneizatu egin da kultura eskaintza, eta hori kaltegarria da”

Zornotza Aretoak bizirik jarraitzeko gakoa bertako sortzaileen plataforma izaten jarraitzea da, Ugarteren iritzian

KULTURGINTZA • ARITZ MALDONADO

Hiru hamarkada baino gehiago kultur ekitaldiak antolatzen aritu da Luisja Ugarte. Urrian erretiroa hartu zuen, eta Zornotzako kultur-gintzan utzitako lorratza handia da.

Erretiroa hartu zenuenetik, hartu duzu astirik zeuretzat?

Hau ez da fabrika batean bezala, torlojuak egiteari uzten diozula. Informazio piloa dago, eta hori guztia norbaiti pasatzea ez da erraza. Etorri behar izan dut egunen batean, errekaduren bat ematera, baina banekien horrela izango zela. Lan hau ez da bakarrik telefono agenda bat pasatzea. Horrez gainera, lan honetan askotan bizitza eta profesioa elkarregaz doaz, eta hori ezin da momentu batetik bestera aldatu. **Urteotan, asko aldatuko zen lan egiteko modua, hala ere.**

Pentsa ezazu. Lan honetan sartu nintzenetik 31 urte igaro dira. Aurretik ez zegoen ia ezer. Liburutegia zegoen, bere arduradunagaz, euskaltegia ere hor zegoen, eta zine-kluba ere bai. Horiek talde txiki batzuek kudeatzen zituzten, baina udalean ez zegoen inor horrelako ardurak zituena. Dena zegoen egiteko, eta dena zen berria. Aretoak erakusleiho bat dira, eta emaitzak ikusten dira bertan, baina kultur dinamizatzaile moduan mila gauza daude egiteko.

Herria asko hazi da urteotan, eta kultura alorrean ere bai. Atzera begiratu, eta harro sentitzen naiz horretan lan egin dudalako, eta pozik nago egindako ekarpenagaz. Azpiegitura zen arazoetako bat, eta gaur egun konponduta dago. Programak ondo finkatuta daude, auzoetako jaiak eta *Haizetara* eta *Eleizetan* ekimenak guztiz errotuta daude, eta umeei eta gaztetxoei eskaintzen zaizkien programa eta esperimentu piloa martxan daude. Horrek guztiak bere fruituak ematen ditu.

Eta guztien artean, gogoratzen zara zein izan zen antolatu zenuen lehenbiziko ekitaldia?

Bai, noski. Ni apiril batean hasi nintzen beharrean. Udalean antolatu nuen lehenbiziko kontzertua San Juan bezpera baterako egindakoa izan zen. Zornotzarrontzat arra-

tsalde eta gau bereziak dira egun horretakoak, eta Potato taldea ekarri genuen. Ez geneukan agertoki estalirik, eta bidoi eta taulekin egin behar izan genuen. Gero, plastikoa ere erosi genuen, estaltzeko. Hala ere, haizeak bota egin zuen. Kontzertua egin egin zen. Jai batzordean, eta Bilboko Aste Nagusian ere

“

Aretoak erakusleiho bat dira, lanaren emaitzak ikusten dira, ez atzeko lan guztia”

■

“

Honetan hasi nintzenean ez zegoen udaleko inor; dena zegoen egiteko, eta dena zen berria”

■

eginak nituen aurretik horrelako lanak, baina udaleko arduradun moduan horixe izan zen lehenbizikoa. Zornotza Aretoan antolatu zen lehenbiziko ekitaldia ere akorduan dut: gala bat egin genuen.

Eredurik-edo jarraitu zenuten?

Orain hogeita bost urte, gala bat egin zen lehenbiziko gau horretan. Zornotzako hainbat taldek parte hartu zuten orduan ere, Markeliñek, esaterako. Talde horiek gune bat eskatu zuten, areto bat, arte eszenikoetarako. Udalak zine zaharra erostea pauso logikoa izan zen, hutsune hori betetzeko. Hurbileko eredu batzuk hartu genituen eredu moduan. Adibidez, Arriola. Ordurako, bost urte edo gehiagoko ibilbidea zuten, eta programazioan-eta eredu ziren, gauzak egiteko zuten moduagatik. Galaren ostean, hilean bi edo hiru ekitaldiko eskaintzagaz hasi ginen, eta asteburuetan, zinea ematen genuen. Lehenbiziko aktuazioa taldearen *Hoy Última Función* izan zen, Itziar Lazkano eta Ramon Bareagaz, hogeitaz geroago berreskuratu zena. Kepa Junkera ere aritu zen bertan, lehenbiziko



Luisja Ugarte Ormaetxea

Kultur teknikari ohia
Zornotza | 1953

kontzertuetako batean. Orain une ez oso onak pasatzen ari denez, beragaz gogoratu gura nuke, ea animatzen den. Hortik aurrera, jauzi handia eman genuen, eta programazioa urritik maiatzera birtartean egitera hasi ginen. Ordutik hona, eskaintza profesionala eta herriko taldeena nahastu dugu. Argi geneukan programazioa anitz izan behar zela, eta esperimentatu egin behar zela. Jendearen entretenimendurako obrak obra sakonagoekin uztartu behar ziren, eta euskararen presentziari ere merezitako garrantzia eman behar zitzaion. Alde horretatik, oso pozik nago egindako lanagaz.

Gizartea ere nahiko aldatu da urteotan.

Gizartea aldatu egin da, eta kultura kontsumitzeko modua ere aldatu da urteotan. Orain zailagoa da jendea aretora erakartzea, eta eskaintzen den obra ezezaguna bada, are gehiago. Publizitate asko egiten dutenak edo laguntzaileak dituztenak baino ez dira arrakastatsuak; horiek mugiarazten dute ikuslea. Horrek homogeneizatu egin du eskaintza. Lehen, oster, kuriositate gehiago zuen jendeak. Hori zen jendea mugiarazten zuen motorra. Erreklamu handien atzetik baino ez da mugitzen orain jendea, eta

“

Hainbat diziplinako profesionalen topagunea da Zornotza Aretoa”

■

“

Munduko zortetik onena opa diot David Murillori; ziur naiz ondo egingo duela lana”

■

hori Zornotza Aretoarentzat oso kaltegarria da. Sona handiko ekitaldiek ere lekua izan behar duten arren, inguruko kultur eskaintzaren erakusleiho izan behar du, batez ere, aretoak. Oro har, hori galdu egin dela uste dut. Urte guztietan ekarri ahal izan ditugu horrelako izen handi batzuk, jendea erakartzen dutenak, baina inguruan mugitzen diren sortzaileentzat plataforma bat izaten saiatu gara. **Aldatu ez dena artista zornotzarrei ematen zaien babesa da.** Harro sentitzekoa da hori. Hona

ez dira ekarri gauzak erakusteko bakarrik. Zornotza Aretoa areto bizi bat dela erakutsi behar da, batez ere. Markeliñekoek, adibidez, bertan egiten dute dena, sorkuntza fasetik eszenaratzerara arte. Horrek ordu askoko lana suposatzen du, bulegoan zein taula gainean. Esperimentatu, entseatu... Markeliñe diodan bezala, Anita Maravillas aipatu dezaket. Eta beste hainbat adibide ere badaude. Zornotza Aretoa topagune bat ere izan da, noski. Hainbat alor eta diziplinako langileen edo artisten topagunea ere izan da urteetan, eta saretu egin dira Zornotza Aretoan. Berdina gertatu da, adibidez, Durangoko San Agustin kulturgunean. Bere barruan irakiten egon behar da areto bat, eta hau irakiten dagoela urte osoan erakutsi du bere ibilbideak. Areto bakoitzak bere inguru geografikoan eragin behar du, arte eszenikoen denetariko iniziatibak planteatuz. Horixe da etorkizunerako gakoa.

David Murillok hartuko du zure lekukoa.

Azken hamar urteetan beragaz egin dut lan, batez ere azkeneko bietan. Munduko zortetik handiena opa diot, baina ziur naiz ondo egingo duela lana.

“Markeliñeren ibilbidean ez dugu hasierako ilusioa sekula ere galdu”

Joserra Martinezek, Zornotzako beste artista batzuekin batera, Markeliñe antzerki taldea sortu zuen orain 35 urte



LENIOR ELORRIAGA

**Joserra Martinez
Gonzalez**
Markeliñe antzerki
taldea
Zornotza | 1964

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

**Zornotza Aretoaren 25. urteurre-
nak Markeliñeren 35. urtemugagaz
bat egin du. Bi erakundeen artean
lotura estua dago.**

**Zer harreman izan du Zornotza Are-
toak Markeliñegaz urteotan?**

Zornotza Aretoa zabaldu zutenetik, erreferentziazko lekua izan da guretzat, hemen egiten den programazioagatik eta baita en-

tseguak egin ahal izateko espazio bat delako ere. Bulegoak libre geratu zirenean, hauxe izan zen gure egoitza. Aretoan eroso prestatu ditzakegu gure espektakuluak.

Zelan gogoratzen duzu Markeliñeren sorrera?

Gogorra izan zen. Ordurako, ba-zeuden talde batzuk, eta ez zegoen gauzak mugitzeko modurik. Gu programazio batzuetara heltzeko borrokatzen ginen. Orain kontra-

koa pasatuko da, eta guri botako dizkigute harriak. Baina, urteek aurrera egin ahala, bizitzaren legea dela konturatu naiz. Jarrera hori ikusten dudanean, oster, ez naiz haserretzen, gu hasi ginean antzekoa pasatzen zelako, eta nik neuk ere hor islatuta ikusten dudalako neure burua. Jende berriak leku bat egiteko lan egiten du, arlo denetan. Guk geurea egin genuen, umeentzako antzezla-

netan eta kale ikuskizunetan espezializatu ginen eta. Hasiera hartan, soldatan baino, erosi gura genuen materialerako dirua zelan atera pentsatzen genuen. Sasoi hartan ez zegoen antzokirik. Frontoi eta kiroldegietan aritzen ginen. Zornotza Aretoa lehenengoetakoa izan zen.

Sasoi hartan, zein testuinguru kultural zegoen?

Gogo handia zegoen gauzak egi-

teko. Trantsizioaren azken sasoia zen. Gauzak esateko eta komunikatzeko irrika sumatzen zen. Baina ez zegoen baliabiderik. Zorionez, bazegoen publikoa, eta erantzun ona izaten genuen. Prekariatatean bizi ginen. Hala ere, aurrera egiten genuen. Urte ilusionagarriak ziren, gazteak ginen eta. Ogitarteko bat eta loleku bat izanez gero, ez genuen arazorik. Markeliñeren ibilbidean ez dugu hasierako ilusio hori sekula ere galdu. Kontatzen dugun horregaz publikoa emozionatzea da helburua.

Zuen ikuskizunetan, gai sozialak daude oinarrian.

Berez irteten zaigu. Ikuskizunek oinarri bat izatea, seduzitzea eta hausnarraraztea gura dugu. Gauza

“

**Gure ikuskizunek
oinarri bat izatea,
seduzitzea eta
hausnarraraztea
gura dugu”**

hauek ondoen kontatzen diren lekua kalea da. Zentzu horretan, kalea eskuzabalagoa da.

Mundu guztian zehar ibili zarete.

Azken hiru urteotan asko bidaiatu dugu, *Andante* ikuskizunagaz batez ere. Memoria historikoaren inguruko lana da. Edozein gerra edo gerraostetan desagertutakoei buruzkoa da. 100 funtzio inguru eskaini ditugu, eta 70 nazioartetan egin ditugu: Polonian, Alemanian, Eslobakian, Brasilen, Errusian, Ingalaterran, Danimarkan... **'Julietta, Romeo Circo' lan berria etxean estreinatu zenuten joan zen astean. Zein harrera izan du?**

Zirkua eta antzerkia uztartu ditugu, klasiko baten ikuspuntutik kontatuta: Romeo eta Julieta. Publikoaren erantzuna ederra izan da.



'Armagedon'. 1991. Markeliñe.



'Kartoi biraka'. 1998. Markeliñe.

Gurasoek euren kabuz gestionatu ahalko dituzte eskoletako jantokiak, baina Berton Bertokoak ez du begi onez ikusi aukera hori

Gestio zuzen horretan, guraso elkarteak arduratu beharko dira langileak kontratatzeaz, elikagaiak lortzeaz eta segurtasunaz, besteak beste



Berton Bertokoak osatzen duten hainbat guraso eta dinamika babestu duten eragileak, iaz, bideoklipa aurkeztu zutenean.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA
Gernikan eta Markinan garatutako esperientzia pilotuen eredu araututa, guraso elkarteek jantoki zerbitzua euren kabuz gestionatzeko aukera emango die Eusko Jaurlaritzak datorren ikasturtetik aurrera. Gestio zuzen horretan, gurasoak arduratu beharko dira sukaldeko

profesionalak kontratatzeaz, elikagaiak eskuratzetik eta segurtasunaz, besteak beste. Baina, Durangaldeko ikastetxeetan bertako eta sasoiko produktuak kozinatzearen alde lan egiten duen Berton Bertokoak dinamikako kideek ez dute begi onez ikusi. Euren ustez, Eusko Jaurlaritzak "eskuak garbitu" gura

"Jantokien kudeaketaren ardura eta kudeaketa bera ezin dira guraso elkartearen bizkarrean utzi"

izan ditu. "Eskola-jantokien kudeaketaren ardura eta kudeaketa bera ezin dira guraso elkartearen bizkarrean utzi", diote. Gainera, guraso elkartearen osaketa aldakorra izaten denez, egonkortasuna zalantzan ipini ahal dela ikusten dute.

Norberak guztia gestionatzearen eredu berri horretaz aparte, prest ere agertu da.

ohiko catering sisteman parte hartzea da ikastetxeek duten beste aukera. Eta, Berton Bertokoak kideen iritziz, catering enpresa aukeratzeko erabaki ahalmena eduki

Berton Bertokoakoen iritziz, catering enpresa aukeratzeko ahalmena eduki behar lukete

behar lukete eskolek, gaur egun ezinezkoa dutena. Bestalde, jantoki ordua hezkuntza curriculumean sartu behar dela diote, eta langileak horretarako trebatu, administrazioaren gestiopean egonda.

Arau aldaketa lantzeko Gasteizen eginiko batzordean parte hartu du Berton Bertokoak, eta "lege proposamen serio bat" ezbaidatzeko deia egin dio Jaurlaritzari.

Bestalde, EH Bilduk uste du Jaurlaritzak "erantzukizunari ihes" egin diola. "Jaurlaritzak ondo daki guraso elkarteetan aritzen direnak boluntarioak direla eta ez dutela gaitasun errealek jantokien jardun osoa bideratzeko". Sistema aldaketa erreklamatzeko jarraituko duela dio EH Bilduk, eta guraso elkarteren batek autogestioaren eredu hartzen badu, "aukerak jorratzeko" prest ere agertu da.

Gasteizerako autobus linea berria martxan dago eta astegunetan 14 bidaia egingo ditu norabide bakoitzean

DURANGALDEA • J.G. / M.O.

Gasteizera joan behar izaten duten autobus erabiltzaileek hobekuntzak ikusi dituzte zerbitzuan, urteetan zehar protestan ibili ostean. Arabako Aldundiaren kontzesio aldaketaren eraginez, linea berria

'www.anboto.org' webean eta Alava Busen atarian eskura daude ordutegiak

martxan dago. Astegunetan hama-lau bidaia egingo ditu norabide bakoitzean; lehen, sei ziren. Astegunetan, sei bidaia izango dira. www.anboto.org webean eta Alava Busen atarian daude eskura ordutegiak. Bestalde, autobus flota berria da.

Aitziber Irigoras Durangoko alkatea (EAJ) pozik agertu da, eta erakundearen arteko elkarlana eskertu du. EH Bilduk gobernatutako udalek erabiltzaileak zoriondu dituzte, "egindako ahaleginagatik".



Linean funtzionatzen ibiliko diren autobusak berriak dira.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko urtarrilaren 18a
17. urtea - 747. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarra.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Otsailaren 1ean jasoko dituzte etxeko giltzak Durangoko gazte alokairuko lehen sei etxebizitzaren erabiltzaileek

Lau bat hile barru gutxi gorabehera, gazteei bideratutako egitasmoko beste bost etxe adjudikatu gura ditu udalak

DURANGO • MARKEL ONAINDIA
Durangon gazte arloagaz eta etxebizitza politikagaz lotura duen proiektu garrantzitsu bat datozen egunetan bihurtuko da errealitate. Izan ere, otsailaren 1ean jasoko dituzte etxeko giltzak gazte alokairura bideratutako lehen sei etxebizitzaren erabiltzaileek. 34 gaztek eman zuten izena programan, eta horietatik 22 sartu ziren urtarilaren 8an udaletxean egindako zozketan. Gazteentzat era horretako programa bat duen eskualdeko lehen herria da Durango.

Aitziber Irigoras alkateak eskerak eman zizkien parte-hartzaileei, eta Pilar Rios alkateordea pozik agertu zen proiektua "errealitate" bihurtzeagatik. Gainera, "laster"



Faustegoienako babeseko 118 etxetatik 16 izango dira, guztira, gazte alokairurako.

gazte alokairuko beste bost etxe emango dituztela iragarri zuen. Udaleko idazkariaren esanetan, etxe horiek gutxi gorabehera lau hile barru adjudikatzea aurreikus-

ten dute. Orduan, beste zozketa bat egingo dute, hilaren 8ko zerrendan zeudenak kontuan hartuta, eta eskatzaile berriei parte hartzeko aukera emanda.

Gazteei emantzipatzen laguntzeko asmoz sortutako proiektua da gazte alokairuarena. Izan ere, eremu pribatuaren egoera ez da erraza gazteentzat; Gaindegia beha-

tegiaren datuek diote Durangon, batez beste, 700 eurotan dagoela alokairua. Etxea tokatu zaion gazteetako batek, Julen de Carlosek, eman zuten gazteen egoeraren berri, zozketa egunean. "Ekimen ona

Gazteei emantzipatzen laguntzeko asmoz sortutako proiektua da gazte alokairuarena

Gaindegia behategiaren datuek diote Durangon, batez beste, 700 eurotan dagoela alokairua

iruditzen zait, gaur egun alokairuan bizitzea kasik inposiblea baita". Hala ere, herrian alokairuaren alde mobilizatzen ibili den Zabalduko Ditugu mugimenduaren ustez, sei etxe "ez dira nahikoa" Durangoko gazteen beharrezana asetzeko.



Durangoko Udaleko eta Jaurlaritzako ordezkariak proiektuaren aurkezpenean.

Aramotzeko etxeak eta ingurunea berrituko dituzte, 4,2 milioi euro inbertituta

16 eraikin, 128 etxe guztira, berrituko dituzte 50eko hamarkadan sortutako langile auzoan

DURANGO • M.O.

Aurretiaz San Fauston egin zuten lez, Aramotz inguruak aldaketa esanguratsua jasoko du datozen urteetan egingo duten proiektuari esker. 128 etxe biltzen dituzten 16 eraikin berrituko dituzte 50eko hamarkadan sortutako langile auzoan. Gainera, ingurunea urbanizatu eta erreka desbideratuko dute.

Egitasmoak 6,6 milioi euroko aurrekontua du. Udalak 2.178.000

euro inbertituko ditu, eta Jaurlaritzak, 2.040.000 euro. Gainontzeko dirua bizilagunek ipiniko dute, baina Jaurlaritzak 1,7 milioi euro emango ditu diru-laguntza zuzenetan etxebizitzak berritu ahal izateko, etxe bakoitzeko 13.000 euro inguru. 1,2 milioi euroko berme-funtsa ere eskura egongo da.

Jaurlaritzak 1,7 milioi euro emango ditu laguntzetan etxebizitzak berritu ahal izateko



Gure ikasleen ahotsa

“Elkarlanari, hurbileko giroari eta talde izaten jakiteari lehentasuna ematen zaio”



Maialen Delgado Arribas
(20 urte, Durango)
Lehen Hezkuntzako 3.maila egiten ari da, ibilbide orokorretik, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien (HUHEZI) Fakultatean.

Zergatik aukeratu zenuen Lehen Hezkuntza Gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean?
Batxilerra amaitutakoan nahiko argi izan nuen magisteritzan aritu nahi nuela, eta Haur Hezkuntza baino Lehen Hezkuntza nahiago nuela. Kontu desberdinak zirela eta, ikasketak gauzatzeko zentroa aukeratzea kostatu zitzaidan. Mondragon Unibertsitatearen eta HUHEZIn berri izatean, lehentasuna ematea erabaki nuen, orduetegi aldetik aproposa iruditu zitzaidalako eta metodologiak konbentzitu ninduelako. Egun ez naiz erabakiaz damutzen, izan ere, garapen profesional zein pertsonalerako aberasgarri izan zait eta harreman bereziak sortu ditut.

Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia?
Desberdina. HUHEZIn eskertze-koa den hurbileko tratua dago irakasle zein ikasleen artean. Gainera, modu kooperatiboan elkarlanean aritzea asegarria eta aberasgarria izaten ari da. Zerbaitetan harritu ere egin naiz taldeetan ekoiztu izan ditugun proiektu eta lan indartsuekin.

Nola definituko zenuke HUHEZIn jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Berritzailea, aipatu bezala, elkarlanari, hurbileko giroari eta talde izaten jakiteari lehentasuna ematen zaio. Arin sentiarazten zaituzte eroso. Bestalde, hausnarketarako lekua ere bada gradua, modu askeagoan, autonomoan eta ikuspegi kritiko eta zabalagoan aritzea ahalbidetzen duen metodologia da.

Unibertsitateak zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko?
Unibertsitatean bertan dugun espazioa eta erabilera gustatzen zaizkit. Bestalde ekimen ugari bultzatzen dira, kirolaren zerbitzuetatik, adibidez, txapelketak eta irteera askotarikoak. Ikastaro desberdinak ere eskaintzen dira bakoitzaren formakuntzarako, zeinu hizkuntza ikastaroak, lan eskaintza desberdinak, mindfulness... HUHEZIn eskaintza ikasketetatik haratago doa zentzu horretan.

Euskararen erabilera jarriko nuke hobetzekotan. Azkenaldian erdara dezente entzuten da, agian hori denon artean bultzadaxo bat eman beharko genioke, euskararentzako arnas gune izan daitekeen espazio hori berreskuratzeko.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?
Irakasle moduan prestakuntza bat jasotzea nuen helburu, hezkuntza mundua ezagutu eta horretan jarduteko. Hasi nintzenetik egun arte, bilakaera positibo bat egon da nire formakuntza prozesuan, eta honetan trebatzen jarraitu nahi dut.



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Kontsultatu beste aukerak

Tel.: 946 816 673
www.zarateyexpe.com

Ima Garrastatxu izango da Durangoko EH Bilduren alkategaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeetan

Abendu amaieran EH Bilduk eginiko hauteskunde primarioetan 336 lagunek parte hartu zuten, eta 216k eman zuten Ima Garrastatxuren aldeko botoa; Ion Andoni del Amok 118 boto batu zituen, eta bik zuri bozkatu zuten



Garrastatxuk 216 boto jaso zituen EH Bilduren barne bozketan.

DURANGO • J.G. / M.O.

EH Bilduk ere badauka bere alkategaia maiatzaren 26ko udal hauteskundeetarako. Ima Garrastatxu izango da, Ion Andoni del Amogaz primarioetan lehiatu eta gero. Abenduaren 28tik 30era bitarteko bozketan parte hartu zuten 336 pertsonetatik 216ren botoa jaso zuen Garrastatxuk. Ondorioz, EAJko Mireia Elkoroiribegaz eta PSE-EEko Jesica Ruizegaz batera, Durangoko alkatetzarako bi-

Garrastatxu Informazio Zientzietan lizentziatua da, eta administrazio publikoan lan egin du

dean aukeratu duten hirugarren emakumea da.

Garrastatxu Informazio Zientzietan lizentziatua da, eta administrazio publikoan lan egin du hainbat urtez. Gaur egun, karre-

Durangoko gobernu aldaketa "inoiz baino posibleagoa" dela dio EH Bilduk

rako funtzionarioa da Bizkaiko Foru Aldundian. Prebentzio eta Lan Osasuneko delegatua da bertan. Bestalde, Kriskitineko partaide da aspalditik, eta Sare mugimenduko kide ere bada.

EH Bilduren ustez, bere proiektu politikoak "inoiz baino atxikimendu handiagoa" duela eta "esperantzeta eta ilusioa" sortzen dituela erakusten du lehenengoz primarioak egin behar izateak. "Proiektu anitz eta zabal" bategaz, Durangoko gobernu aldaketa "inoiz baino posibleagoa" dela dio EH Bilduk.



Durangoko zine ondoko eraikinak botatzen hasi dira, etxe berriak egiteko

DURANGO • M.O.

Durango erdiguneko leku garrantzitsu batek itxura berria edukiko du 2020an. Izan ere, udalak informatu du ordurako espero dutela etxeak eta ingurunearen berrurbanizazioa amaituta egotea. Enpresa eraikitzaileak 420.000 euro ipiniko ditu atzealdean dagoen Arandoño kalea berrizteko; espaloiak zabaldu, zerbitzuak berritu eta irisgarritasuna bermatuko dute, udalak emandako informazioaren arabera.

Etxe berriak egiteko bide horretan, zine ondoko eraikinak botatzen hasi dira azken eguntan. Lanen eraginez, joan zen astean Uribarri kalea zarratu egin zuten egun bitan, beharginak lanean zeuden bitartean.

Auto elektrikoek jabeek %95eko hobaria edukiko dute zirkulazio zergan

DURANGO • M.O.

Herriaren Eskubideak bultzatutako ekarpen bati esker, ibilgailu elektrikoek, hibridoek eta karbono isuri gutxi dutenek hobaria edukiko dituzte 2019ko udal zergetan. Aurtengo zergetan kontuan hartu ahal izateko, hilaren 14ra arte egin zitekeen eskaera; hortik aurrerakoak 2020ko ekitaldian sartuko dira.

Herriaren Eskubideak dio airearen kalitatea hobetzeko asmoz garatutako neurri bat dela. Ibilgailu elektrikoek %95eko hobaria jasoko dute zirkulazio zergan, eta hibridoek %75ekoa. Matrikulazio lehen urte bietan, kilometroko 120 gramo karbono dioxido baino gutxiago isurtzen dutenek %25eko hobaria edukiko dute, eta 110

Herriaren Eskubideak dio airearen kalitatea hobetzeko asmoz garatutako neurria dela

gramotik beherakoek %40koa. Herriaren Eskubideak salatu du EAJk eta PSE-EEk ekimenaren aurka bozkatu zutela. Gainera, kritika egin du udal gobernutik ez dutelako gaiak informaziorik zabaldu.



Ate irekiak

urtarrilak 19

11:00etan idazkaritzan
ludoteka zerbitzua

ZATOTZ GURERA!



SAN ANTONIO

IKASTETXEA

Irakasleon Kooperatiba

📞 94 681 67 76

🌐 www.sanantonio.eus

✉ dorleta.arzalluz@sanantonio.eus

📘

Kultur Etxearen proiektua 2019a amaitu orduko idatzita edukitzea gura du Zaldibarko Udalak

Ellexpe-Sanjuangoa eraikinean egingo dute Kultur Etxe berria, eta proiektua urtea amaitu aurretik egongo da idatzita



Ellexpe-Sanjuangoa eraikina.

ZALDIBAR • A.M.

Proiektua hasi berri den urtea amaitu aurretik "idatzita" egongo dela adierazi du Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkateak. Kultur Etxe berriaz gainera, bestelako proiektu garrantzitsuak egikaritu-ko dituzte 2019ko aurrekontuak onartu ostean. Eskola eremuaren urbanizazioaren 2. fasea izango da aurrekontuetan egitea onartu den inbertsio nagusia. Alkatearen berbetan, proiektu hau "estrategikoa" da herriarentzat. Guztira, 4,9 milioi inguruko aurrekontua du

Azken zazpi urteetako kudeaketa eta udalaren zorra %77,5 jaitsi izana defendatu du Azpitartek

EAJk eta PSEk 2019ko udal aurrekontu proposamenaren aurka bozkatu zuten bilkuran

+Zaldibarrek 2019rako. EH Bilduk udal gobernuan daramatzan zazpi urteetan eginiko kudeaketa defendatu du Azpitartek, bide batez. "Udalaren zorra %77,5 jaitsi da eta egitasmo garrantzitsuak egin ditugu; adibidez, Olazar gunea atondu dugu, ospitaleko lurrak herriarentzat berreskuratu ditugu eta haur eskola berria eraiki dugu", adierazi du. 2019ko aurrekontu proposamena abenduko osoko bilkuran onartu zuten, EH Bilduren aldeko botoekin. EAJk eta PSEk proposamenaren aurka bozkatu zuten.

Udal eraikinen garbiketa

Bestalde, gobernu taldeak udal eraikinen garbiketa-lanetan parte hartzen duten langileen soldataren %15eko igoera aurreikusten du. "Gure nahia garbiketa-langileak langile publikoak izatea da. Momentu honetan hori ez da posible, baina euren lan baldintzak ahal den neurrian hobetzeko saiakera egingo dugu", adierazi du Eneritz Azpitarte alkateak.

2019ko aurrekontuak

4.945.325,75 euro

- Eskola eremuaren 2. fasea egingo dute: inguruko eremu guztia biziberrituko dute eta aparkaleku berriak egingo dituzte.
- Eskoletako handitze obrak amaitzean, eraikin zaharra margotuko dute.
- Auzoei dagokien partida handituko dute, argiteria hobetu, bideak konpondu eta auzoko izenen seinaleak jartzeko.
- Futbol zelaiko ureztapen sistema konpontzeko partida.
- Udal eraikinen garbiketa-langileen %15eko soldata igoera.



Lanek eragina izan dute herrigunean.

Enpresak hilabeteko luzapena eskatu du Bixente Kapanagako lanak amaitzeko

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Askondoko errotonda kendu eta Bixente Kapanaga kalea norazko bakarrek bihurtzeko lanek amaituta egon behar zuten abenduan. Baina, lanerako "materiala lortzeko zailtasunak" arrazoituz, hilabeteko luzapena eskatu du obran dabilen enpresak. Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, hil honen amaieran amaituko dituzte herrigunea itxuraldatuko duten lanak. Argiak txertatuta izango dituen zurezko zoruak eta altzairuzko jarlekuak ipiniko dituzte, eta arbolak ere bai. Urrian hasitako lanok 1.000 metro inguruan eragingo dute eta 134.000 euroko inbertsioa eskatu dute.



Jose Manuel Franco elorriarrak irabazi du 2018ko Berrizko argazki lehiaketa

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

14 lan aurkeztu dituzten Berrizko XX. argazki lehiaketan, Jose Manuel Fraco elorriarraren lanak irabazi du lehenengo saria. Udalak ohar bidez jakitera eman duenez, Francoren argazkiak bigarren sailkatua den Rafael Iraetaren argazkiak baino puntu bat gehiago jaso du. Beraz, gutxigatik izan bada ere, bigarren saria Iraeta zaldibartarrarentzat izan da, eta sari berezia, Joserra Apella berriztarrentzat.

Bestalde, aurten genero ikuspegiari dagokion saririk ez dutela eman jakitera eman dute, aurkeztutako argazkiek ez dutelako genero ikuspegia jorratu.

EH Bilduk OHZ jaistea eskatu du, 2019ko udal aurrekontuak babesteko

Udal gobernuari hainbat proposamen egin dizkio alderdiak, 2019ko udal aurrekontuak babestearen truke


ABADIÑO • A.M.

Proposamenen artean, besteak beste, liberatu kopurua eta hauen soldata jaistea, landa eremuetarako inbertsioak gehitzea eta "funtsezkoak ez diren" diru partidak murriztea proposatu du EH Bilduk. Proposamen zehatzagoak ere egin ditu Mikel Urrutia bozeramaile duen alderdiak; adibidez, proiektu

hauek lehenestea eskatu du: Muntzaratzeko biribilgunea, Matienako aparkalekuak eta Zelaietako oinezkoen segurtasuna eta irisgarritasuna. Horrez gainera, herritarrek aurrekontuei buruzko ekarpenak egiteko aukera edukitzea eskatu du EH Bilduk. "Baliabideak jarri behar dira herritarrek udal dinamiketan parte hartzeko", esan du Urrutiak.



Abadiñoko EH Bilduko ordezkariak.



GUALBI
ASESORES

www.gualbiasesores.com

- ✓ *Aholkularitza fiskala*
- ✓ *Kontabilitate-aholkularitza*
- ✓ *Merkataritza eta finantza-aholkularitza*
- ✓ *Lan-aholkularitza*
- ✓ *Kontu-auditoretza*
- ✓ *Aholkularitza juridikoa*

***Bezeroa, enpresako bere kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia***

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com

Konposterako gune bat kendu eta skatean aritzeko eremua egingo dute Mallabian

Aurrekontuetan 50.000 euroko diru atala gorde dute proiektua gauzatzeko



Obalo forma duen skate gunea izango da, goiko irudiak erakusten duen moduan.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Abenduko udalbatzarrean 2019ko aurrekontuak onartu zituzten Mallabian. Sarrerak eta irteerak 2.091.930 milioi eurotan parekatu dituzte.

Aurrekotuak EAJren aldeko botoekin onartu ziren. EH Bildu abstenitu egin zen. Ideia berrien "falta" eta herri konposta egiten dutenei diru-laguntza "kendu"

Herritarrek egindako eskaerari erantzun gura diote azpiegitura berriagaz

izana dira alde ez bozkatzearen arrazoiak, Aitor Loiola EH Bilduko zinegotziak azaldu duenez. Herri-gunean skate-rako gune bat egitea

izango da aurrean gauzatuko duten proiektuetako bat. Inbertsioen atalean 50.000 euro gorde dituzte asmo horretarako. Obalo forma duen azpiegitura izango da.

Herritarren partetik jaso duten eskaera izan da. "Horrelako gune bat egin zedin eskatuz, sinadurak batu eta udaletxean aurkeztu zituzten herritar batzuek", Igor Agirre alkateak zehaztu duenez.

INBERTSIO BATZUK

- Skate gunea egiteko: 50.000 euro
- Burdinazko barandak kendu eta altzairuzkoak jartzeko: 45.000 euro
- Auzo bideak konpontzeko: 50.000 euro.
- Auzoetako argiteria publikorako: 40.000 euro
- Auzoetara internet heltzeko antena jartzeko: 40.000 euro
- Auzoetako baserrien izenak dituzten kartelak jartzeko: 12.000 euro

Endika Garate izango da Otxandio EAJren alkategaia udal hauteskundeetan




Uri Batzarra aho batez aukeratu du

OTXANDIO • J.D.

Endika Garate Goikolea estreinakoz izango da zerrendaburua. 32 urte ditu eta udal politika ezagutzen du, azken legealdi honetan Kultura eta Euskara zinegotzi moduan aritu da eta. Erronka honi "energiaraz beteta eta konbentzimendu handiz"

Erronka honi "energiaraz eta konbentzimendu handiz" ekingo diola adierazi du Garatek

ekingo diola adierazi du. "Azken lau urteotan ikasitakoa baliatu gura nuke Otxandio hobetzerara begira". Legealdi honetan "oposizio positiboa" egin duten arren, herrian "zer hobetu" badagoela uste du.



Bizikletak garbitzeko gunea egiten dabilta Zornotzan, herritarren iritzia entzunda

Gure Kirolak izeneko eremuan garbitu ahal izango dituzte bizikletak; hile eta erdi emango dute instalazioa ezartzen



25.000 euroko inbertsioa egingo du udalak, orain obretan dagoen gunea eraikitzeko.

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako Gure Kirolak izeneko eremuan bizikletak garbitzeko gunea egiten hasi dira. 2019ko aurrekontuak osatzeko zornotzarrekin batera landutako prozesu parte-hartzailetik irtendako eskaera bat da. "Herritarrek bizikletak modu ordenatu eta kontrolatua garbitzeko leku baten beharrezana aipatzen zuten aurrekontu parte-hartzaileetan. Zerbitzu hau oso erabilgarria izango da mendian

Zornotzarrekin batera landutako prozesu parte-hartzailetik irtendako eskaera bat da

bizikletan ibili ostean euren bizikleta garbitu gura dutenentzat", azaldu du udalak ohar batean.

Instalazioa eraikitzen hilabete eta erdi emango dute eta aurrekontua 25.000 eurokoa izango da guztira.

Bonbardaketa gogoratzeko, murala marraztu dute Elorrion

Joana Mancisidor artista da 'Eurena da memoriaren eskubidea, eta gogoratzea gure betebeharra' lanaren egilea

ELORRIO • M.Z.

Elorrioko Memoria Historikoa lantzen dabilen Laumunarrieta 1937 elkarrekin gerra zibilean Elorriok jasandako bonbardaketa oroitzen duen murala aurkeztu zuen 2018 amaieran. Joana Mancisidor artista izan da *Eurena da memoriaren eskubidea, eta gogoratzea gure betebeharra* lanaren egilea. Mural horretan, bonbardaketaren unean italiar tropa faxistek airetik hartutako irudi bat agertzen da.

Memoria historikoa aztertzen

Herriko memoria historikoa aztertzea eta transmititzea du helburu Laumunarrieta elkarrekin eta, horretarako, hainbat ekintza egiten dabilta. Besteak beste, 1936 eta 1946. urteen artean Elorrion zer gertatu zen ikertzeko beka bat jarri zuen martxan irailean, Elorrioko Udalagaz elkarlanean. Mikel Diego historialari bilbotarra ari da Elorrioko iturri dokumentalak aurkitu eta horiek zabaltzen.



Urte amaieran egin zuten muralaren aurkezpena.

Gremioen gida

anboto

 **Zurgintza**

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

 **Iturgintza**

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalataile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

 **Iturgintza**

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA • Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

 **Iturgintza**

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

 **Iturgintza**

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekoaotalora.com
692 859 779

Zubiaurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pob. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

 **Zurgintza**

ATERPE AROZTZA
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

 **Dekorazioa**

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A • BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 • Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

Gazteen eskariari erantzunez, Buzkantz inguruan skate parkea eraikiko du Elorrioko Udalak

Gazte diagnostikotik irtendako lanak burutzeko, 170.000 euro emango dituzte; lanak 2019an egitea da asmoa



Dagoeneko hasi dira skate parkeko diseinuak lantzen.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Elorrioko Udalak 2019rako aurrekontuak onartu ditu, EH Bilduren eta SQ-2D alderdiaren aldeko botoekin. EAJk aurka bozkatu du. Guztira, 8.540.679 euroko aurrekontua izango du Elorrioko Udalak. Besteak beste, Buzkantz inguruko lursaila parke bihurtu eta bertan skate parkea zabaltzea izango da hurrengo urterako proiektuetako bat. Buzkantz lursaila udalletxearen atzean dago eta gaur egun itxita dago herritarrentzat. Idoia Buruaga alkatearen hitze-

tan, 2019an zehar eramango dute aurrera Buzkantz inguruan skate parkea egiteko proiektua. “Euskal Ur Agentziagaz harremanetan gaude, azken baimenak lortzeko. Eta diseinua lantzen ere hasi gara”,

Skate parkea egiteaz gain, jolasgunea ere egin gura du Elorrioko Udalak Buzkantz lursailean

EAJk ez du aurrekontuen alde egin, ez duelako gobernu taldearen ikuspuntuagaz bat egiten

esan du alkateak. Gainera, gazte diagnostikotik irtendako proiektua denez, gune berriaren diseinua gazteekin batera landu gura dutela jakitera eman du Buruagak. Skate parkea eraiki eta jolasgunea egiteko, 170.000 euroko diru partida emango du Elorrioko Udalak.

Aurrekontuak

- Toloto erreka berbideratzeko, 1.600.000 euro
- Termiten azterketa egiteko 120.000 euro
- Herriguneko errepideak konpontzeko, 85.000 euro, eta auzoetakoak konpontzeko, 40.000 euro
- Argiteria hobetzeko, 84.400 euro
- Kirol taldeei laguntzak emateko, 73.000 euro gordeko dituzte
- Gazteen ekintzetarako, 55.000 euro

Bost familia dabilta asteen hasi duten musikoterapia ikastaroan

IZURTZA • J.D.
Musikagaz familian gozatzeko aukera eskaintzen du asteen Izurtzan hasi duten musikoterapia ikastaroak. Aurrerantzean, izena eman duten bost fami-

Musikaren bidez guraso eta seme-alaben arteko hartu-emanak sendotzea da ikastaroaren helburua

liak martitzen arratsaldetan elkartuko dira, hamabostean behin, jubilatuen lokalean. Musikaren bidez gurasoek euren seme-alabekin hartu-emanak sendotzeko espazio bat sortzea da ikastaroaren helburua.

Trilobiteei buruzko erakusketa zabaldu dute Mañariko Hontza Museoa

MAÑARIA • J.D.
Hontza Natur Zientzien Museoak, Oiartzungo Luberri Ikasgune Geologikoagaz elkarlanean, trilobiteei buruzko erakusketa antolatu du. Erakusketa 2018-2019 ikasturte osoan izango da ikusgai. "Trilobiteak gure planetan bizi izan diren artropodo bitxi eta harrigarrienetakoak dira. Itsas bizidunei dagokienez, 290 milioi urtean nagusi izan ziren gure ozeanoetan", azaldu dute Hontzako arduradunek.

Gabonetako kantu irteeran batutako 230 euroak errefuxiatuen alde emango dituzte Garain

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera iragartzeko baserrikerik baserri gogotsu abestu zuten garaitarrek

GARAI • MARKEL ONAINDIA
Beste herri askotan lez, Garain ere kantuan irten zuten abenduaren 24an, Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera iragartzeko. 70 bat herritar baserrikerik baserri eta auzorik auzo ibili ziren, Trumoitte kultur elkarteak eta udalak Gabonen bueltan sustatutako ekintza kulturalen.

Antolatzaileek azaldu dute batutako diruaren zatirik handiena errefuxiatuen edo migratzaileen aldeko lanetan laguntzeko erabiliko dutela. Hain zuzen ere, ekimenaren gastuetarako diruaz aparte, kantuan jasotako 230 euro emango dituzte. Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteak izango da laguntza horren onuraduna.



70 bat herritar ibili ziren auzorik auzo kantuan.

ATE IREKIAK

Urtarrilaren
31n eta
otsailaren 1ean,
15:00etatik
aurrera

ZATOZ GU EZAGUTZERA



94 681 00 50 • sanjose@durangojesuitak.org
www.informazaitez.eus/ateirekiak

Jesuitak
Jesuitak

Durango

Biharko ametsak, gaurko erronkak

Apatako plazan jolasgune ireki bat sortuko dute, orain arte egon diren oztopo arkitektonikoak kenduta

Herriko erdigunean egiten dabiltzan lanak otsailean amaitu gura dituzte, eta 35.000 euroko aurrekontua dute

egiten dabilta. "Plazak funtzio-
nalitaterik ez zuten hiru estadio
zituen. Horiek kendu eta gune iris-
garri bat sortzeko egiten gabiltza
lanak", adierazi du Jorge Jauregi EH
Bilduko kideak. Orain arte, plaza

**Lan hauekin, plaza
eta honen inguruak
irisgarriago egin gura
ditu Atxondoko Udalak**

**Plazan egon diren
desnibelak kendu eta
maila bakarrean utziko
dute eremua**

lau mailatan banatuta zegoen, eta
otsailean zehar amaitu gura dituz-
ten lan hauekin desnibel horiek
kendu eta plaza maila bakarrean
utzi gura dute. "Egun dauden oz-
topo arkitektonikoak kendu gura
ditugu, jolasgune ireki bat sortzeko
asmoz", esan du Jauregik. Lanok
35.000 euroko aurrekontua dute.
Bestalde, joan zen barikuan
lan hauetan gas hodi batek zulatu
txiki bat izan zuen. Jauregik esan
duenez, hiru ordutara arazoa kon-
ponduta egon zen.



Lanak eginda, irisgarritasuna hobetu gura dute.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Apatako eremu publikoak berran-
tolatzeko, Kale Irekiak prozesuak
ondorio argi bat utzi zuen 2016an.
Herritarrek adierazi zutenenez, plaza
eta bere ingurua dira Apatako er-

digunea, eta hango espazioa errea-
litate horretara moldatu beharko
litzateke.
2017an, herriko erdigunea oi-
nezkoentzako gune bihurtzeko
asmoz, Euskalerrria kalea itxi egin

**Kale Irekiak prozesuan
irtendako proiektuetako
bat da Apatako plaza
berrantolatzea**

zuten autoentzat, eta, horrela, pla-
za ingurua berrantolatu zuten.
Orain, berriz, herriko erdigu-
nea den plaza handitu eta eliza eta
inguruko etxebizitzetara irisga-
rritasuna hobetzeko asmoz, lanak

Star
Days*
Urtarrilaren 14tik 31ra.

18 egun.
Eta 17 sobera izango dituzu.

Goza itzazu. Berririo hemen daude Mercedes-Benz-en Star Days. 18 egun dituzu Mercedes bat eramateko baldintza ezin hobeetan. Aurki ezazu zure kontzesionarioan soilik urtarrilaren 14tik 31ra. Baina, zuretzat prestatuta dauzkagun baldintzak kontuan hartuta, egun bakar batekin nahikoa izango duzu. Gainerako 17 egunak zuretzat dira. Informa zaitez zure Mercedes-Benz kontzesionarioan.

Mercedes-Benz
The best or nothing.

Aguinaga
Bizkaiko Mercedes-Benz kontzesionario ofizial bakarra
Parque Empresarial Boroa, Parc. 2A-3.
48340 ZORNOTZA.
Tel.: 94 630 17 47
www.aguinaga.mercedes-benz.es

Hareek denporak!

Zubiaurre, Garaiko biztanle eta parajeak margotzen

Valentin eta Ramon Zubiaurre anaiak margolari ezagunak izan ziren XX. mende hasieran. Garain jaiotakoak ziren, baina umetan Madrilera joan ziren familiagaz bizitzera, aita Valentin Errege Kaperako musika zuzendari izendatu baitzuten. Artista seneko familia horrek Garaigaz lotura mantendu zuen, eta anaiak pintzel eta guzti etorri izan ziren, bertako biztanleak eta parajeak

margotzera. Gerediaga elkar-teak eta udalak argitaratutako *Iraganaren irudiak* liburuko argazki honetan eurretako bat ageri da, 1900 edo 1901ean.

Zubiaurre anaiek arreba ere bazuten, Pilar. Idazlea zen, eta Madrilen hainbat emakume feminista eta intelektualen bilgune zen Lyceum Club Femeninon parte hartu zuen. Gerran, Mexikora ihes egin zuen. **M.O.**

Politikan

Dani
Maeztu Perez
EH Bildu



Primarioak

Ez nengoen oso konbentzituta. Herrian adostasun batera hel-tzeko kapazak garela uste nuen, eztabaidatuz eta adostuz. Baina, azkenean, udal hauteskundee-tarako gure zerrendaburuaren aukeraketa primarioen prozesu baten bitartez egitea erabaki genuen Durangoko EH Bildun. Eta onartu behar dut, berriro ere, Durangoko ezkerreko soberanistek onerako harritu nautela. 400 pertsonatik gora izena emanda, eta 336k bozkatu dute. Durango-ko zenbaki orokorretan ez dira kopuru handiak izango beharba-da, baina ordezkaritza publikoan urte batzuk daramatzagunok badakigu ze zaila den kopuru honetako parte-hartzea lortzea Durangon, are gehiago eragile politiko baten barne prozesu batean. Adibide moduan, tokiko agenda 21ean, batzar irekiak egiten zirenean, batzar arrakas-tatsuan 60 pertsona batu ziren.

Interesa piztu zuen EH Bilduren barne prozesuak; ondo egindako lana eta aldaketarako grinaren uztartze perfektua. Berriro ere, EH Bildu aitzindaria izan da. Gu-re herrian zeuden ezkerreko sen-sibilitate ezberdinak proiektu bateratu batean batzeko kapaza izan zen koalizioak Durangon al-derdi politiko batek antolatutako lehenengo primarioak antolatu ditu. Komunikabide batzuek azpimarratzen zuten Durangoko EH Bilduk lehenengoz antolatzen zituela primarioak, baina titu-larra beste bat zen; lehenengoz, Durangon, alderdi politiko batek primario irekiak antolatzen zi-tuen hautagaia aukeratzeko.

Zorionak parte hartu duzuen guztioi; eskerrik asko, Ion Ando-ni eta animo, Ima. Orain denok batera Durangora aldaketa ekar-tzeko, gure helburua ez baitzen primario batzuk antolatzea, indar hori guztia aldaketarako eragile bihurtzea baizik.

Durungaldea asteen

Apirilaren 13an helduko da 21. Korrika Durangaldera, Mallabitik sartuta

Durungaldea | 15:50ean Mallabira helduko da 21. Korrika. Arratsalde osoan zehar eskualdea zeharkatu, eta 20:05ean Zornotzan sartuko da. Han, Arratia aldera jarraituko du ekimenak. De-babarrenatik egingo du salto Durangaldera. Otxandiotik, ostera, gauez igaroko da. Hain zuzen ere, hurrengo egunean, apirilaren 14an amaituko da AEK-k antolatzen duen ekimena, Gasteizen. Garesen hasiko da aurtengo Korrika, apirilaren 4an.

Zornotzako Jauregibarria parkean zurezko zubi berria jarriko dute

Zornotza | San Martin erreka gainean dagoen zubia aldatzeko lanak datorren asteko egunean hasiko dira. Zornotzako Udalak Jauregibarria parkean dagoen zubia, presatik gertuen dagoena, berriztuko du, eta gaur egun dagoenaren orde zurezko beste bat jarriko du. Lanak datorren asteen hasiera aurreikusi dute eta hiru aste iraungo dute.

Ia 8.000 lagunek erabili zuten Durangoko Landako Guneko izotz pista Gabonetan

Durango | Gabon bueltan zabalik egon den 14 egunetan, Lan-dako Guneko izotz pista 7.917 pertsona hartu ditu, iaz baino lau bisitari gehiago. Eguneko batez besteko asistentzia 565,5 pertsona-koa izan da eta egunik jendetsuena urtarrilaren 4a izan zen. Egun horretan, 703 patinatzaile batu ziren izotz pistan. 4.293 sarrera umeenak izan dira, 2.485 nagusienak, 148 elkarteetakoak eta 987 ikastaroetakoak.

Iritzia

ASTEKARIA@ANBOTO.ORG • ASTEARTEA 17:00AK ARTEKO EPEA

Andereño Milari

Oso gazte etorri zinen Lazkaotik Iurretara, bertako ume askoren an-dereño izateko. Dena izan zinen guretzat, eta ordutik asko maite izan zaitugu herrian. Gure heziketan pertsona garrantzitsua izan zinen. Lehenik Goiuria ikastolan eta, gero, euskal eskola publikorako pausoa ematean, Iurretan lehenengoz euskarazko lerroa sortu zenean. Bergara-bizitzen joan zinen, baina Iurretaz ez zenuen hartu-eman galdutik. Sanmigeletan, adibidez, Abadetxe inguruan elkartzen ginen zugaz, Donien Atxa altxatzeko momentu eder eta berezi horretan.

Gure partetik hegaz egin duzu, txori txiki baten eran. Zugaz ikasle eta guraso izan ginenok eskerrak eman gura dizkizugu, eta esan, zure kantua beti eramango dugula gure bihotzetan.

Agur andereño, agur Mila
Agur emazte, ama eta amona
Eskerrik asko gugaz konpartitzearren
zure lasaitasun eta gizatasun ona.

Goiuri Sopelana, Amagoia Zuazo, Leire Aldekoa-Otalora, Miren Abasolo, Jon Esturo, Unai Esturo, Iñigo Ettxebarria eta Iñigo Zuazo

MILA MADARIAGAREN IKASLE OHIEN ETA EUREN GURASOEN IZENEAN. (IURRETA)

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

MATRIKULAZIOA
Urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

ATEAK ZABALIK

Urtarrilak 26, goizeko 10:00etatik aurrera

Ezagutu ikastola eta gure
hezkuntza proiektua

* Aste barruan talde-bisitak egiteko:
Tel.: 946200882 / idazkaritza@kurutziagaikastola.eus





'Ulisesen bidaia'

ANTZEZLANA
Elorrio :: Urtarrilak 18

Gorakada antzerki taldearen emankizuna, Arriola Antzokian

Martxoan estreinatu zenetik, hainbat emanaldi izan ditu Abadiñoako Gorakada antzerki taldearen 'Ulisesen Bidaia' antzezlanak. Hurrengo antzezlanak gaur izango da, 20:30ean, Arriola Antzokian. Ulisesen bidaia jolasez betetako dago. Ibilbide horretan, ekintza eta eszena bakoitza unitertso oso bat bihurtzen da.

Urtarrilaren 18an

ABADIÑO akroyoga
Akroyoga saioa antolatu dute abenduaren 26an, Abañoako Gazteiek programaren barruan. 2005etik 2008ra bitartean jaiotako neska-mutilei zuzendutako saioa da. **Izena emateko**, urtarrilaren 18ra arte dago epea zabalik, Udal Mediatekan edo Errota kultur etxean.

BERRIZ jaiak
Sagardotegi ibiltaria eta odoloste jana, 19:30ean, Olakueta plazan.
Kantulagun, 19:30ean.
Nesken binakako frontenis txapelketako finalak, 20:00etan. Ondoren, **San Antonio XIII. Pilota Txapelketako finalak**, Olakueta frontoian.


DURANGO irteera
Biasterira irteera antolatu du Intxaurre elkarteak urtarrilaren 26rako. Upategi batera bisita eta bazkaria antolatu dituzte. **Izena emateko** azken eguna, urtarrilaren 18a.

IURRETA mendi erronka
'Zaldai Mendi Erronka 2019' martxan jarri du Zaldai Mendi taldeak. Urtarrilaren 1etik azaroaren 30era, aurrez emandako zerrendako Euskal Herriko zein Pirinioetako mendi kopuru bat igo behar da, gutxienez. **Izena emateko**, zaldaimenditaldea.org webguneko galdetegia bete behar da.

DURANGO emanaldia
'Mendiak Hurbilduz' proiektzioen 7. edizioa, 19:00etan, Plateruena kafe antzokian. Hiru bideo proiektatutako dituzte: **'Indiako iparraldean eskalatzen' + 'Escalando el presente' + 'Hatzak estutzen'**. Hizlariak hurrengo hauek izango dira, hurrenez hurren: Iker Madoz, Urko Carmona eta Gorka Karapeto.

Urtarrilaren 19an

ABADIÑO mendi ibilbidea
Saibigainera igo eta, ondoren, arratiaz erromesek Urkiolara joateko egiten zuten ibilbidea egiteko aukera, Urkiolako parke naturalak antolatuta. Informazioa: 94 681 41 55 / urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus



Arruabarrenaren 'Muga' erakusketa Iturri

ERAKUSKETA
ELORRIO :: Urtarrilak 21

Jesus Mari Arruabarrenak Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko muga erakusten duen argazkiekin egindako lana erakutsiko du Iturri, hilaren 21ean. Horrez gain, erakusketa urtarrilaren 31ra arte egongo da.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

DURANGO musika
Gu(re)a, 20:00etan, San Frantzisko elizan. Durangoko txalapartariak, Fede Soriak, Itziar Basagoitik eta Borogoditsie abesbatzak parte hartuko dute ikuskizunean.

ELORRIO deialdia
Martxoaren 8a prestatzen hasteko batzarra, herriko emakume guztiei irekia. Iturri kultur etxean, 11:00etan.

Urtarrilaren 20an

ELORRIO kirola
Emakumeen Bizkaiko Xake Txapelketa, 10:00etan, Kirol Etxean.

DURANGO deialdia
Martxoaren 8a dela eta greba feminista antolatzen hasteko batzarra, 11:00etatik 13:00era, Andragunean.

Urtarrilaren 21etik 31ra

IURRETA ikastaroa
Zoru pelbikoa eta Biodantza. Ikastaro biak otsailaren 15ean hasiko dira, Goiuria kulturgunean, Anderebide elkarteak antolatuta. Izena emateko, urtarrilaren 21etik aurrera.

Urtarrilaren 22an

DURANGO opera
'La dama de picas', 19:45ean, Zugaza Zineman. Opera zuzenean.

'Pa Ti Pa Mi' antzezlan La Noche Boludan

ANTZERKIA • Urte berriagaz hasiera emango diote La Noche Boluda antzerki zikloari. Urtarrilaren 24an, 21:00etan, Plateruena Kafe Antzokian Kankaneo Antzerki talde valentziarraren 'Pa Ti Pa Mi' saioa ikusteko aukera egongo da. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, Platerueneko ateak 20:00etatik egongo dira zabalik. Saioaz gozatzeko, 4 euro ordaindu beharko dira.



San Sebastian jaiak asteburuan, Bakixan

JAIK I Doniel Atxa jasota hasi dituzte jaiak Bakixan. Gaur bertso afaria egongo da, Eneko Abasolo *Abarkas*, Gorka Lazkano eta Txaber Altube bertsolariekin. Ostean, berriz, Ander eta Bidart bikotearen emanaldia egongo da. Zapatuan, 21:00etan, bakailao txapelketan batuko dira eta ohitura den lez, gauerdian, danborrada egingo dute. Danborrada amaitutakoan, Luhartz taldeak erromeria eskainiko du.

Domekan, San Sebastian egunean, meza egongo da. Mezaren ostean, dantzariak eta asto probak egongo dira. 17:00etan, berriz, briska txapelketa egongo da, eta Maiztegi Herri Eskolako umeen dantza saioa. Umeen jolasekin eta txokolatadagaz emango diote amaiera jaiak.

Urtarrilak 18

Bertso afaria, 21:00etan, eta ostean, **Ander eta Bidart bikotearen** emanaldia

Urtarrilak 19

Bakailao txapelketa, 21:00etan
Danborrada 00:00etan, ostean, **Luhartz taldearen** erromeria.

Urtarrilak 20

Meza, 12:00etan, ostean, **dantzariak eta asto probak**.
Briska txapelketa eta **Maiztegi Herri Eskolako dantza taldea**, 17:00etan.

DURANGO deialdia
Durangoko Pasiñoan parte hartuko dutenentzat batzarra, 20:15ean, Pinondo Etxeko 3. pisuan.

Urtarrilaren 25ean

ZORNOTZA dantza
'Baserri' dantza ikuskizuna, 20:15ean, Zornotza Aretoan. **Larrua proiektuaren** eskutik.

ELORRIO antzerkia
'Dracula' (Abubukaka konpainia), 20:30ean, Arriola antzokian.

IURRETA ipuinak
Eneko Haritza ipuin kontalaria, 17:30ean, bibliotekan (3-4 urteko umeentzat, nagusi batek lagunduta). 18:00etan, bost urtetik gorakoentzat.

IURRETA ipuinak
Juan Gamba ipuin kontalaria, 19:00etan, bibliotekan. Helduentzat.

Urtarrilaren 26an

BERRIZ antzerkia
'Ghero. Azken euskalduna' (Tartean, Teatro), 20:00etan, Berrizko Kultur Etxean.

BERRIZ ipuinak
Ipuin txokoa: 'Ipuin zaparrada' Ines Bengoa ipuin kontalariaren eskutik, 12:15ean, Berrizko Kultur Etxean.

Urtarrilako agenda	
19	"BAKIXAKO JAI BATZORDEA" 21:00 Bakailao txapelketa. 24:00 Danborrada. Ostean, erromeria Luhartz taldeagaz
20	"BAKIXAKO JAI BATZORDEA" San Sebastian eguna 11:00 Meza Santua Iurretako koruak abestuta. Jarraian, Mikel Deuna Dantza taldea. Ostean, Asto probak. 17:00 Briska txapelketa. 17:00 Maiztegi Herri Eskolako dantza taldea. Amaitzean, ume jolasak eta txokolatada
21	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 18:15 Emakumeen literatur tailerra
22	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" Ipuin kontalaria "Eneko Haritza" 17:30 3-4 urte bitartekoak, heldu batek lagunduta 18:00 5 urtetik gorakoak 19:00 Helduen Ipuin kontalaria
23	"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA" 10:00 XL irakurketa kluba



Jan and Jai ekimenaren barruan, DJ Stragoson saioa egongo da, hilaren

DURANGO ikuskizuna
Irrien Lagunak, 18:00etan, Plateruena kafe antzokian. Gaztainerre eguna antolatu dute.

DURANGO musika
IntxaurReggae: Selektah Stepi, 23:30ean, Intxaurre elkartean.

Urtarrilaren 31ra arte

DURANGO ikastaroak
'Humanitates 2019' ikastaroetarako izena emateko epea zabalik. Informazioa: 94 603 00 20 telefonoan edo Arte eta Historia Museoa.

Martxoaren 3ra arte

DURANGO erakusketa
'Bay Sala (1913-1995)', Durangoko Arte eta Historia Museoa.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Ploey**

barikua 18: 18:15

domeka 20: 17:00

:: Durango ZUGAZA

• **Glass**

barikua 18: 19:30/22:00

zapatua 19: 16:45/19:30/22:30

domeka 20: 16:30/19:00/21:30

astelehena 21: 18:30/21:00

martitena 22: 20:00

eguzatena 23: 20:00

• **Gente que viene y bah**

barikua 18: 19:30/22:00

zapatua 19: 19:30/22:30

domeka 20: 19:00/21:30

astelehena 21: 18:30/21:00

martitena 22: 20:00

• **La favorita**

barikua 18: 19:30/22:00

zapatua 19: 19:30/22:30

domeka 20: 16:30/19:00/21:30

astelehena 21: 18:30/21:00

eguzatena 23: 20:00

• **Asterix: Edabe**

magikoaren sekretua

zapatua 19: 17:15 (gaztelera)

domeka 20: 16:30

• **Kutxidazu bidea Ixabel**

eguzatena 23: 20:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Yuli**

zapatua 19: 22:00

domeka 20: 20:00

astelehena 21: 20:00

• **Udare erraldoiaren**

istorio harrigarria

domeka 20: 17:00

:: Zornotza ARETOA

• **El Gran Baño**

barikua 18: 20:15

zapatua 19: 19:30/22:00

domeka 20: 20:00

astelehena 21: 20:15

• **Spider-Man**

zapatua 19: 17:00

domeka 20: 17:00



Han eta Hemen

Begiratu ongi bi irudi hauei. Badira zortzi gauza bi eszenetan ageri direnak. Ikusten al dituzu?



Itzala

Zein da korrika ihesi doan horren itzal zuzena?

.....

PLAZAN BAZAN 6

www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)

Sartu www.plazanbazan.eus web atarian eta denbora-pasa hauen erantzunekin batera beste hainbat jolas aurkituko dituzu.



Ikusten al dituzu bi irudien arteko aldeak? Hamar dira guztira.

HAMARREKOA

































DOMINOAN

Marraz itzazu lauki zurietan falta diren irudiak, dominoak zentzua izan dezan.

Osasun gida

anboto

Ginekologia
PSE: 93/18

mam ginekologia zentroa

Mikeldi 13, 48200 - DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU
674 322 360

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Fisioterapia
PSE: 155/17

HOBETU
Fisioterapia & Podología

info@hobetu.es
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2
P.K./ 48230 Elorrio
www.hobetu.es

Podologia
PSE: 148/13

**PAUSOZ PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA**

GOIATZ MURUA
Podologoa

AINHOA ELORZA
Podologoa

NEREA RODRIGUEZ
Podologoa

Kiropodia, onikopatia,
alterazio dermatologikoak
eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behe DURANGO
946 203 630

Odontologia
PSE: 145/13

clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behe}
DURANGO
Tel.: 946 819 951
Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Optometria
PSE: 162/13

keinu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

www.keinuoptometriazentroa.com

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**

Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia


Juan Olazarán, 1 behe
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

JAI AK!

BERRIZ 2019
SAN ANTONIO JAI AK



www.berriz.org

***Berrizko Udalak
jai zoriontsuak
opa deutsuez***



Donien Atxagaz poteoan ibilita hasi dituzte jaiak

Urtarrilaren 16an, eguaztena, eman diete hasiera San Antonio jaietari Berrizen



Donien Atxa tabernarik taberna eramaten dute.

JAIK • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herri askotan, Donien Atxa jasota hasten dituzte jaiak. Berrizen ere, San Antonio jaietan eskualdeko hainbat herritan dagoen erritual bera errepikatzen dute, baina berezitasun propio batez: Donien Atxa tabernarik taberna eramaten dute poteo orduan, plazan altxatu aurretik. Eguaztenean izan zen hori, urtarrilak 16, eta 20:30 aldera altxatu zuten Donien Atxa. Jaiak irauten duen zazpi egunetarako, hainbat ekintza antolatu dituzte. Esaterako, urtarrilaren 18an, sagardotegi ibiltaria eta nesken binakako frontenis txapelketa eta Sanantonioetako pilota txapelketako finalak jokatu dituzte.

Urtarrilaren 21ean, berriz, 2011n berreskuratu zituzten nekazaritza-olinpiadak egingo dituzte. Urtero-urtero hainbat herritar batzen dituen ekintza 19:00etan hasiko da, frontoian. Udalak jakitera eman duenez, jaietako ekintza hau herriko gazte zein helduei bideratuta dago, eta parte hartzeko gonbita egin die.

Urtarrilak 18, barikua

19:30 SAGARDOTEGI IBILTARIA ETA ODOLOSTE JANA. Olakueta plazan.

19:30 KANTULAGUN.

20:00 NESKEN BINAKAKO FRONTENIS TXAPELKETA. FINALAK.

ONDOREN, SAN ANTONIO XIII. PILOTA TXAPELKETA - FINALAK. Olakueta plazan.

GAZTETXEAN

19:00 Pintxopotea Berrizko Bertso Eskolak girotuta.

23:00 Kontzertuak Gaztetxean: Saia Goait, Kuartz eta DJ Amama

Berrizko jaiak 2019

Urtarrilak 19, zapatua

12:00 LA NORDIKA ROJO ESTANDAR

IKUSKIZUNA. Olakueta plazan.

19:00 DJ OIHAN VEGA. Probalekuan.

21:30 KONTZERTUA: SEIURTE ETA GRISES

Sarrera 6€ / bazkideak: 4€

Kultur Etxean.

GAZTETXEAN

22:30 Kontzertuak Gaztetxean: Kohatu, The Van eta DJ Ainhoa

Aurten, bertso poteoa egingo dute Berrizko gaztetxean.





Iturriza kalea, 9
Tel: 946 824 009
48240 BERRIZ

fonda
TABERNA





Ibai Ondo
Ferreteria · Burdindegia

Iturriza, 10
946 824 489
f 946 824 489
ferreteriaibaiondo@gmail.com
BERRIZ

Egunon

**Okindegia
Gozotegia
Kafetegia**

Iturriza, 21 - Berriz
946 550 902

**pedro
juan**
JATETXEA

SAN ANTONIO, 1.
48.240 BERRIZ BIZKAIA
TEL: 94.682.62.46

**HIERRROS
RIEZU S.A.**
burdinak
eta metalak

Eitua industrialdea, 4 - 48240 BERRIZ - Tel.: 946 824 131 - Faxa: 946 824 390 - hierrosriezu@telefonica.net

Liburudenda **Amalur** aldizkariak
papera opariak

Iturriza, 29 Berriz Tel.: 946 826 248

 **COMERCIAL AGRICOLA
BASERRI TRESNAK** 

Nekazaritzako eta lorezaintzarako makinak salmenta eta konponketa
Tel.: 94 682 40 87 - Pol. Ind. Eitua, 66 - BERRIZ
www.baserritresnak.com

Seiurtek kontzertua eskainiko du Kultur Etxean urtarrilaren 19an

Urtarrilaren 18 eta 19an hainbat kontzertu egongo dira Berrizko Hiltegixe Gaztetxean



Seiurte taldeko kideek kontzertua emango dute Kultur Etxean.

MUSIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

San Antonio jaietako musika egitarauaren barruan, 2017ko abenduan hamarkada bi bete zituen Seiurte taldeak kontzertua eskainiko du. "Kontzertu polita izango da, leku eta formatuagatik. 360 graduko formatua duen kontzertua da, hau da, jendeak inguratuta joko dugu. Formatu eta giro berezia izango duen kontzertua izango delakoan nago", aitortu du lokin Elortza Seiurte taldeko kideak.

Etxeko taldea Grises taldeagaz batera arituko da, urtarrilaren 19an, Kultur Etxean, 21:30ean. "Grises oso talde ezaguna da. Gainera, gure lagunak dira eta asko gustatzen zaizkigu. Eurek ere kontzertu polita eskainiko dute", jarraitu du Elortzak. Maiatzaz geroztik, Seiurte taldeko kideek ez dute kontzerturik

jo eta gogotsu daude instrumentuak berriro ere astintzeko. "Denboratxo da ez dugula kontzerturik ematen. Orain arte, material berria sortzen egon gara. Hala ere, aukera hau suertatu zitzaigun eta ezin izan dugu ezetzik esan", esan du musikariak. Gainera, "pilak kargatzeko" aitzakia aproposa dela jakinarazi du.

Kontzertuak Gaztetxean

Hiltegixe Gaztetxeko kideek ere egitarau zabala antolatu dute San Antonio jaien harira. Barikuan, urtarrilaren 18an, bertso eskolak girotuta pintxopotea egongo da eta, horren ostean, Saia Goait, Kuartz eta DJ Amamaren kontzertuak egongo dira. Zapatuan, Kohatu, The Van eta DJ Ainhoa arituko dira.

Urtarrilak 20, domeka

11:00 ESKUALDEKO XXXVIII. BARAZKI ETA FRUITU ERAKUS-KETA. Probalekuan.

11:00 ARTISAU TXOKOA. Frontoian.

12:00 BASERRIKO OILASKO DASTAKETA. Olakueta plazan.

13:00 IREMIÑE eta SAN LORENTZO DANTZA TALDEAK.

Olakueta plazan.

Urtarrilak 21, astelehena

17:00/19:00 BARRAKAK MERKEAGO (0,80€).

19:00 ASKARIA ETA NEKAZARITZA-OLINPIADAK. Frontoian. (SARRERA 1€)

Ikuskizuna, txorizo - ogitartekoa eta edaria (amaitu arte).



CERAMICAS MACOBER

MATERIAL DE CONSTRUCCION

Chimeneas

ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

keinuu optometria zentroa

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.

Arkaraz 3
48240 Berriz
tel: 946225099

- Optometrian teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

www.keinuoptometrizentroa.com

ETXEBARRIA
ESTANKOA

Iturritza, 14
Tel./Faxe: 946 827 958
BERRIZ

Azkonizaga

Edari banaketa

GARAGARDOAK • ARDOAK • LIKOREAK
ESNEA • URA • FRESKAGARRIAK

Lejarza, 1 48213 Izurtza (Bizkaia) Tel: 94 681 06 52 / 615 78 55 58
azkonizaga@azkonizaga.com



“AEBetan bira egitea amets bat betetzea bezalakoa izan da; sorreratik buruan eduki dugun ideia da”

AEBetan sortu zen The Wilsons taldea, 2014an; lau urte geroago, diskoa kaleratu dute eta sortu ziren lekuan bertan lau kontzertu eskaintzeko aukera eduki dute.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Urte berezia izan da 2018a Wilsondarrentzat. 'Rage&Love Songs' lana kaleratzeaz gainera, taldearen sorleku izan zen AEBetan bira egin dute gabonetan. Egun, Aitor Mendilibarrek, Gorka Bidaurreazagak, Ibai Arrizabalagak, Iñaki Ugarteburuk eta Andoni Ormaetxeak osatzen dute egun The Wilsons.

Pozik biragaz?

Iñaki Ugarteburu: Sekulakoa izan da, talde itzela elkartu garelako han, taldekideez gainera lagun askogaz bildu garelako.

Gorka Bidaurreazaga: Etxe bat errentan hartu genuen, eta hori izan da gure egoitza. Kontzertuetako hiru errenkadan jo genituen; Brooklyn auzoan, eta bestea, Manhattanen.

Aitor Mendilibar: Taldekideak etorri izan direnean, auzoan dagoen Sweatshop Studiosen entseatu izan dugu [bertan grabatu zuten *Remember Times*]. Gabonetako jai egunetan, ordea, itxita egon zen eta, ondorioz, egun bakarra genuen entseatzeko eta bira prestatzeko. Zorionez, Max lagunak bere taldearen lokalean entseatzeko utzi zigun, bere taldekideei ezer esan barik izan bada ere.

“

Lehen, familia bat ginen, baina AEBetako bira honen ostean, are gehiago batu gara”

—

Maiatz aldetik elkarregaz jo barik egon arren, oso sentsazio onak eduki genituen.

Zer moduz joan dira kontzertuak?

G.B.: Aldaketarik handiena profesionalizazioa izan da, nire ustez. Ordutegiagaz oso zorrotzak dira, adibidez.

A.M.: 45 minutuko emanaldiak egin ditugu, eta talde moduan asko hazteko balio izan digute mota honetako kontzertuak.

Ibai Arrizabalaga: Baterian jesartzeagaz batera hasi ginen jotzen, abestiak bata bestearen atzetik.

A.M.: Talde moduan, jauzi bat emateko balio izan digu. Areto txikietan jo dugun arren, oso kontzertu profesionalak izan dira. Bestalde, bira luze bat izango balitz bezala bizi izan dugu, izan ere, gure arteko konbibentzia erabatekoa izan da. Lehen, familia bat ginen, baina, orain, are gehiago batu gara.

I.U.: Orain arte, kontzertuak asteburuetan jotzera egon gara ohituta, tartean atsedena hartuz. Han, ostera, bata bestearen ostean jo ditugu. Egunero dena muntatu, oholtza gainean guztia eman, gero batu, eta, azkenean, parranda. Nekatuta egon gara, baina hustu egin gara taula gainean.

Izan duzue arazorik kontzertuak eskaintzerakoan?

A.M.: Arazo bakarra kartelagaz eduki genuen, izan ere, 'The Wilson, from Spain' jarri ziguten, baina eurekin berba egin ostean, ondo jarri zituzten, bai izena, bai jatorria.

Kontzertuetako bat apur bat laburragoa izan zela ere aipatu behar.

I.A.: Bertako materiala erabiltzen uzten dizute lokaletan, eta hori ere eskertzekoa da. Itxura ugerreko lokala izan arren, esaterako, sekulako materiala zuten, eta langileak ere oso profesionalak dira.

I.U.: Alphaville aretoan, adibidez, Andoniren eta bion anplifikadoreek itxura oso eskasa zuten, baina sekulako soinua zuten eta oso pozik geratu ginen. Eta 10 watt-eko anpliak baino ez ziren! Andonik 60ko hamarkadako anpliategaz jo zuen, eta itzelean entzuten zen.

A.M.: Lokaletan eskertu egiten dute hango materiala erabiltzea, horrek asko errazten dielako lana. Guk Ibairen platerak eta instrumentuak baino ez ditugu eraman, eta horrek guri ere asko errazten dizkigu bidaia.

G.B.: Ezer barik joan, eta bira bat egiteko aukera izan dugu. Horregatik egiten dituzte artistek hain bira luzeak AEBetan. Birak egiteko kultura handia dago han.

A.M.: Lagunek ekarri zizkiguten biniloak, eta merchandisinga New

Yorken bertan egin genuen. Instrumentuak han alokatu genituen. Batzuk, erosi.

Berezia izango zen bira taldearen sorlekuan egitea.

G.B.: Bai. Amets bat betetzea bezalakoa izan da bira hau. Taldearen sorreratik eduki dugu ideia buruan, eta joan zen ekainean erabaki genuen aurrera egitea. Behin txartelak hartuta, kontzertuak lotzen hasi ginen, bira osatu arte. Ametsa, bai, baina lan handia eskatu duena.

G.B.: Utopia bat zirudien guretzat, baina egin dugu azkenean. Data hurbildu ahala, hainbat lagunek esan ziguten eurak ere bazetozela, eta horrek are bereziago egin du bira. Oso babestuta sentitu gara ingurukoei esker.

Diskoa kaleratu duzue 2018an, biniloan.

G. B.: Hiru taldekide binilozale amorratuak dira. Horregatik erabaki genuen formatu horretan ateratzea.

A. M.: Formatua primerakoa zen. Gainera, alde batean Lorentzo Recordsen grabaturiko abestiak dauka, eta beste aldean hasieran grabatu genituenak.

Aurrera begira, zer proiektu duzue esku artean?

I.U.: Ez gara ohiko talde bat, sei hilean behin edo biltzen gara; aldi bakoitza zuzentzen saiatzen gara.

I.A.: Ez dugu jakiten noiz elkartuko garen denok berriro, eta, beraz, elkartzen garenetan gogo guztia jartzen dugu.

“

The Wilson from Spain' jarri zuten kontzertuetako batean, baina lortu genuen ondo jartzea”

—

Apirilaren 17tik 21era izango da Topaklown Durangoko klown topaketaren edizio berria

Azken urteetan bezala, ordu gutxitan bete dira klown ikastaroetan parte hartzeko eskaintzen diren 130 lekuak; Frantziatik, Argentinatik eta Herrialde Katalanetatik etorritako irakasleek eskainiko dituzte ikastaroak eta ikuskizunak

KULTURA • ARITZ MALDONADO

San Agustin kulturgunean ez ezik, Aurora Abasolo parkean eta Ezkurdi plazan ere eskainiko dituzte ikuskizunak Topaklown 2019 jaialdi arrakastatsuan. Bederatzi ikuskizunek osatzen dute 2019ko egitaraua. Aurten, gainera, Txelu Angoitiaren argazki erakusketa eta berbaldia ere egongo dira. Apirilaren 18an izango da 'Clown&Berba' ekitaldia, 16:30ean.

Denboraldi berrirako, hamabost ekitaldi programatu ditu San Agustin kulturguneak. "Antzerkia, dantza, umeentzako ikuskizunak, helduentzakoak... Ohi bezala, askotariko egitarau bat eskaini gura izan dugu", azaldu du Arantza Arrazola teknikariak. Horrela, Galiziako konpainia biren ikuskitzunez gozatu ahaliko da (*Elisa y Marcela* eta *Xoga*), eta *Préterito Imperfecto* komediaren estreinaldia ere ikusi ahaliko da datozen hilabeteetan Durangoko kulturgunean. Tabula Rasa konpainiaren *Se Busca. Una Odisea en el Espacio y el Tiempo* obrak itxiko

du udaberriko denboraldia. Titzina konpainiaren *La Zanja* antzezlanagaz eman zitzaion hasiera, joan zen domekan, urteko lehenbiziko ekitaldiari. 2001ean sortu zenetik, bost obra sortu ditu Bartzelonan

ezarritako konpainiak, eta harrera ona eduki izan dute euren lanek.

Bazkide kanpaina

Sasoi berriagaz batera, bazkide berriak lortzeko kanpaina abiatu

du kulturguneak. "Daramagun ildo kulturalari eusteko, beharrezkoa da ditugun bazkideei eutsi eta berriak lortzea", dio Arrazolak. Egun, 300 bazkide inguru ditu San Agustin kulturguneak.



Duo Las Polis taldea.

Hitzez eta Ahotsez zikloaren 6. edizioa martxan, 'Askatasuna' gaitzat hartuta

Gaur izango da lehenengo saioa, Uxue Alberdi bertsolari eta idazlearen eskutik

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Gaur hasiko da Hitzez eta Ahotsez literatur egitasmo herritarraren seigarren edizioa. Aurtengo gaia *Askatasuna* izango da, eta horren bueltan egingo dituzte irakurketak eta solasaldiak. Gaurko lehenengo jarduera Arte eta Historia Museoa egingo dute, 19:00etan, Uxue Alberdi bertsolari eta idazlearen eskutik. *Askatasuna Bertsoraino* izena du bere berbaldiak, eta Ane Arbeok egingo du aurkezpena.



Iazko Hitzez eta Ahotsez irakurraldia.

Gero, otsailaren 14an eta martxoaren 14an solasaldi dialogikoak egingo dituzte Bizenta Mogel bibliotekan, 19:00etan. Apirilaren 12an Dorleta Kortazar ipuin kontalaria izango da protagonista; *Berba kateatuak* lana eskainiko du. Maiatzaren 2an beldur eszenikoari aurre egiteko teknikez jardungo dute formazio saioan Julen Orbegozo EHUKo irakasleagaz; Plateruenean izango da tailerra, 19:00etan.

Irakurraldia

Ohi bezala, irakurraldi kolektibo batez amaituko dute Hitzez eta Ahotsez zikloa, maiatzaren 10ean, Plateruenean. Lehenik, bazkarian elkartuko dira, eta gero, 17:00etatik gauerdira arte, irakurketa jarraitua egingo dute.

Gai librean

Ritxi Blanco Aguilera
Ikerlaria



Oinazearen intimitatea

Erlojuaren txirrinak jo baino lehen esnatu zara gaur beste behin, bart ia lorik egin ez baduzu ere. Bizitza azkarregi doala sentitzen duzun arren, zurrunbiloan barrena gidatzen zaituen inertzia e(ze)zagun horri erresistentzia jartzea ezinezkoa dirudi.

Trenaren abiadura motelduko zelakoan, zeure buruarekin eztabaidatzea erabaki zenuen: Goldman, Chomsky, Castoriadis eta horientzat soinu banda urratu bat, begietatik entzuten ez den horietakoa.

Izan ere, musika bereziki maite duzu, baina ez edozein. Gorputz instrumentala eta letrek osatzen duten dikotomia banaezina izan beharko litzateke, baita esaten eta egiten denaren arteko erlazioa ere: emantzipazioari abestu emantzipazioa praktikatzeko den bitartean, koherentziak duen oreka eder bezain ahul hori.

Zoriontasun etengabea oximoroia eta dogmatismoa delako, minaren edertasunari ere kantatzen dio zure soinu bandak. Ultra-baikortasunean oinarritutako sistema honek ezinezona ezkutatzeraz behartzen gaituen arren, giza-legea horrelakoa da funtsean: hauskorra, ahula eta kaotikoa.

Horregatik, utopian sinistea oinez egiteko modu bakarra dela erakutsi zizun Gaeleak, baita utopia errealtate bihurtu duten musika talde handiek ere, txikiak bailiran. Fugazi eta Dut hil zitzaizkigun, eta bueltatu diren modu berean, abisatu gabe joango da Lisabö. Disfrutatu ditzagun behintzat, gure oinazearen intimitatean.

XOGA

Entremans danza

Urtarrilak 20, domeka
18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxea@plateruena.net

Otsailak 8 · 23:30ean

IZAKI GARDENAK + MONTAUK

Kontzertua

“Hiru partidu kenduta, gainerako denak osorik jokatu ditut Gernikan; ez nuen uste hainbeste jokatu nuenik”

Gernika Rugby Taldeagaz Ohorezko Mailan lehenengo denboraldia du Gaizka Iturriagaetxebarriak; taldea larri dabil, baina ez du esperantza galdu



Gaizka Iturriagaetxebarria
Uribelarrea
Gernika Rugby Taldeko jokalaria
Abadiño | 1993

sekula ez dago jakiterik. Beti dago markagailuari buelta emateko aukera.

Zuloan egotea konplikatu da. Taldean urduritasuna edo tentsioa nabari dira?

Baietz uste dut. Azkenengo zaudenean, beti darabilzu buruan hurrengo partidua derrigor irabazi behar dela. Partidu bat irabazten dugunean konbentzitu nago bola da positiboa etorriko dela. Ligan ditugun garaipen biak bata bestearen atzetik etorri ziren.

DRTn taldekide izandakoekin hartu-eman mantentzen duzu?

Bai, gehienekin hartu-eman dut eta ahal dudanean partiduak ikustera joaten naiz.

Gizonezkoen talde nagusia larri dabil Ohorezko B Mailan. Gernikaren moduan, sailkapeneko azkena da. Ikusi dituzun partiduetan, zer traza hartu diozu taldeari?

Talde gaztea dute. Lehenengo zati onak ikusi ditut, baina bigarren zatietan, ez dakit zergatik, lau-bost entsegu sartzen dizkiete. Alderdi fisikoa izan daiteke faktoreetako bat? Beharbada, bai.

Mailari ertsiko diola uste duzu?

Ezetz uste dut. Azken-aurrekoa, Vigo taldea, bederatzi puntura dute eta bigarren itzulian elkarren kontra duten partidua kanpoan jokatuko dute. Edozelan ere, hiru-lau partidua irabazita salbatu daitezkeela pentsatu behar dute, eta horren bila joan.

Iaz ere sufritu egin zuen DRTk. Zuzendaritzakoek aipatu zuten jaistea ez zela drama bat izango eta beste indargune batzuk zituztela.

Mailaz jaistea azken aukeratik azkena da. Beheko taldeetan dabilzan gazteak gora begira egoten dira. Talde nagusikoak euren erreferenteak dira. Nik ere izan nituen nire erreferenteak gaztetan. Euren mailara heltzea zen nire ilusioa.

Gazterik debutatu zenuen DRTko lehenengo taldean. Zelan gogoratzten duzu?

17 urte gaz debutatu nuen, etxeko partidua batean. Minutu dezente jokatu nituen eta irabazi egin genuen. Oso urduri nengoela gogoratzten dut, baina zaleen eta taldekideen laguntza izan nuen.

Partidu bat irabazita, egoerari buelta emateko konfiantza hartu dezaketela uste du Durangon bizi den abadiñarrak.

ERRUGBIA • JOSEBA DERTEANO

Ohorezko Mailako lehenengo esperientzian, espero zuena baino gehiago jokatzen ari da abadiñar gaztea. Arlo horretan, ezin du gehiago eskatu. Baina bere errugbi ibilbidean izan dituen talde biak—Gernika aurten eta DRT iaz arte—estu eta larri dabilta euren ligetan. Bata zein bestea azkeneko daude. DRTren egoerari irtenbide gaitza ikusten dio.

Zelan sortu zitzaizun Gernika Rugby Taldera batzeko aukera?

DRT uzteko asmoa nuen. Orduan, Mikel Blanco lagunak, DRT eta Gernikako jokalaria ohiak, Gernika Rugby Taldekoekin berba egin zuen eta denboraldi-aurrea euren egin nuen. Gustura zeuden eta jarraitzeko aukera eskaini zidaten. **Azken urteetan, Argentinako jokalaria asko izan ditu Gernikak. Aurten ere horrela da?**

Bai, zortzi-bederatzi argentinarrak dira. Samoa eta Zeelanda Berriko

bana ere badaude, eta gainerakoak euskaldunak dira, gehienak gernikarrak.

Argentinarrak zelakoak dira hartu-emanetan?

Berbaldunak, bromazaleak eta irekiak dira. Gertukoak dira eta erraza da euren hartu-eman izatea. **Lehenengoz zabilta Ohorezko Mailan. Zertan igartzen da maila aldaketa?**

Zelai barruan arlo askotan igartzen dut. Plakaketetan, esaterako. Kontaktua askoz ere gogorragoak

“Alde dezentegaz atzetik joan garenetan, ez etsitzea falta izan zaigu; arinegi makurtu dugu burua”

dira, eta etengabeak. Bat gaintitzen baduzu, beste bi daude zain.

Kontaktu gogorrek jokalaria gaztea kokildu egin dezakete?

Ez, hazten laguntzen dizute. Kolpea jaso, lurretik altxatu eta berriro beste kontaktu baten bila joateko prest! Zeu zoaz kontaktua bila. Ez da nire kontua bakarrik. Taldeko jokalaria gazteek, 18 bat urte dituztenek, berdina esaten dute. Horrela ikasten da.

Nahi adina jokatzen zabilta?

Hiru partidu kenduta, gainerako partiduak osorik jokatu ditut. Ez nuen uste hainbeste jokatu nuenik eta oso pozik nago. Horretarako entrenatzen naiz, jakina.

Zeure aldetik ere entrenatzen zara?

Bai, korrika egiten dut, gimnasia joaten naiz... DRTn egon nintzeanean ere gimnasia joaten nintzen, baina oraingoa desberdina da. Derrigor moduan hartu dut. Gimnasioak indarra hartzen laguntzen du, eta korrika egiteak hauspoa zabaltzen.

Gernika ez dabil espero izandako maila ematen. Azken sailkatua da eta zortzi puntura du azken aurrekoa. Zure ustez, zeintzuk dira egoera horren arrazoiak?

Bi-hiru partidu azken minutuetan erabaki dira eta balantzak aurkari aldera egin du. Azken txanpan erabaki hobeak hartzea falta izan zaigu. Beste batzuetan, markagailuan alde dezentegaz atzetik joan garenean, ez etsitzea falta izan zaigu. Arinegi makurtu izan dugu burua. Partiduak luzeak dira eta

“DRTri lehenengo zati onak ikusi dizkiot, baina bigarrenetan lau-bost entsegu egin izan dizkiete”

Irene Loizate Bizkaia-Durangora batu da eta martxoan pare bat lasterketa lehiatuko ditu

Gustura sentitzen bada, hurrengo denboraldian egutegi zabalago bat egiteko aukerari atea zabalik uzten dio

TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO
Irene Loizate durangarra Bizkaia-Durango taldera batu da eta aurtun lehenengoz probatuko ditu errepideko lasterketak. "Talde durangarra denez eta ni durangarra naizenez, Agurtzane Elorriaga zuzendariak taldera batzeko proposamena egin zidan. Astebete hartu nuen pentsatzeko eta, nire entrenatzaileagaz komentatu ostean, probatzea erabaki nuen", adie-

txirrindularitza proba izango da. Gabonetan taldekide izango dituen hainbat txirrindulari ezagutzeko aukera izan du Durangon egindako hainbat entrenamendu saiotan. Gustura sentitzen bada, hurrengo

denboraldian egutegi zabalago baten aukerari atea zabalik uzten dio.

Bizikletarako dohainak
Agurtzane Elorriagak Loizateren gaitasuna goraipatu du. "2018an

duatleta ikusgarria zela frogatu zuen eta bizikletan erakutsitako dohainek gure arreta erakarri zuten. Momentuz, Gabonetan egindako entrenamenduetan oso indartsu dagoela erakutsi du", esan du.



Loizate Europako duatloi txapelketan.

Gabonetan Durangon egindako entrenamendu saioetan bere taldekide berriak ezagutu zituen

razi du iazko urrian 23 urtez azpiko Europako duatloi txapelketa irabazi zuen. Tropelean lehenengo esperientzia izango duenez, apurka hastea erabaki du eta "pare bat" lasterketa lehiatuko ditu aurtun, martxo inguruan. Bietako bat, Eibarko

Urterik urtera bere marka propioak hausten ari da Iurretako Ohorezko Mailan

Lider ez ezik, inoiz baino puntu gehiagogaz amaitu dezake lehenengo itzulia

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO
Ohorezko Mailako lehenengo itzulia asteburu honetan amaituko da eta Iurretako izango da neguko txapelduna. Hori gutxi balitz, asteburuan galtzen ez badu, inoiz baino puntu gehiagogaz amaituko du ligako lehen erdia. Iaz lortutako marka —33 puntu 17 partidutan— hobetuko luke. Urterik urtera bere marka propioak hausten dabil.

Beste estatistika batzuetan ere nabarmentzen dabil Iurretako, ez



Iurretakok ligako azkenengo bost partidua irabazi ditu. JON IGLESIAS

puntu kopuruan bakarrik. Defentsa gotor eta ordenatuan nabarmendu ohi den taldea inoiz baino gol gehiago sartzen dabil: 31 gol 16 partidutan. Talderik goleatzaileena da, alde handiagaz, eta aurrelariak une gozoan daude. Azken bost partiduetan 14 gol sartu dituzte. Partidu horiek denak Iurretakoren garaipenagaz amaitu dira.

Iazko esperientzia
Iaz egoera berdinean amaitu zuen lehen itzulia, baina bigarren itzuliko bolada txar baten ondorioz —sei partidutan hiru puntu— ezin izan zuen zuzenean igo, eta promoziorako sailkatu zen. Aurtun akats berdina ez errepikatzen saiatuko da Jon Gurutz Vazquezek zuzendutako taldea.

Jokaldia

June Arbo
Sarriugarte
Korrikalaria



Urte berri bat, ilusio berri bat
Urte berri bati eman diogu hasiera eta, horrekin batera, domeka goizetako kros lasterketen usaina hurbiltzen hasi da. Denboraldi hasiera ohi baino beranduago izan da aurtun niretzat, eta bi hilabetez entrenatu eta gero, lehenengo lasterketetan parte hartzen hasi naiz. Ez nahi bezalako forma fisikoarekin, baina bai, uste baino hobeto; eta, batez ere, gogoz beteta. Izan ere, lesioak eta arazo fisikoak edozein kirolariren etsaiak dira, eta nahi dugun bezala kirola egin ahal ez izatea ez zaigu batere gustatzen.

Aurtun, aldaketa handi batekin hasi da denboraldia, izan ere, kategoriaz igo eta nagusiekin batera lehiatuko ditut krosak, hainbat kilometro gehiagokoak izango direnak. Zornotzako krosean asko sufritutako bederatzi kilometro egin ondoren, lehenengo kontaktua eginda, hurrengo krosetan gero eta hobeto joatea izango dut aurtun helburu. Izan ere, askotan, helburuez pentsatzen hastean, burua galtzen dugu. Emaizta onak lortzeko entrenatzen gara, baina, emaitza espezifikoak bilatzen hasten garenean eta lortzen ez ditugunean, zaila izaten da hori barneratzea. Ze garrantzia dauka garaipen bat ez lortzeak, aurretik hilabetez, egunero, sakrifikatu eta eman dugun guztiaren ostean? Ez da emaitza, postu, marka jakin batean kateatuta gelditu behar, zurrumbilo bihurtu arte.

Helburuak eta emaitzak lortu eta denbora bat pasatu arte ez gara konturatzen lortu dugunaz. Pertsonak aseezinak gara eta zerbait lortzen dugun heinean, beti gehiago nahi izaten dugu. Garrantzitsuen egunero egiten duguna, sakrifikatzen duguna baloratzea da; emaitzak eta helburuak, lehenago edo geroago, beti helduko dira eta.

Seguros Bilbao
RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

katerin ardoak
iñaki uribe
saltan
Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia
KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427
saltan.com

BODEGUILLA
TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Bizkaiko kros txapelketak 500 bat parte-hartzaile batuko ditu domekan Berrizen, Berrizburuko zirkuituan

Gizonetan Garciaren eta Ariznabarretaren artean egon daiteke txapela; emakumeetan Santutxu taldekoak dira faborito

KROSA • JOSEBA DERTEANO

Ohitura bihurtu da Bizkaiko kros txapelketa Berrizen lehiatzea. Azkeneko sei aldietatik bost Berrizburuko azpiegituretan antolatatu dituzte. Aurtengo aldia, domeka honetan, ez da salbuespena izango eta 500 bat parte-hartzaile batuko ditu.

Lehenengo lasterketak kadete mailakoak izango dira, 10:00etan. Orduetik aurrera, mailaz maila irtengo dira krosleriak. Nagusien

Emakumeetan Bilbao Atletismo Santutxu taldeko krosleriak izango dira faborito

txanda eguerdian helduko da. 12:10ean gizonak irtengo dira eta 13:00etan, emakumeak.

Gizonetan eskualdeko korrikalariak dira faborito. Durangaldea Running taldeko Dabid Garciaren eta Durango Kirol Taldeko Oier



Krosleriak Berrizko zirkuituan lehian.

Ariznabarretaren artean egon daiteke garaipena. "Biak oso indartsu dabilta", nabarmendu du Miguel Angel Munitxa Sekulebedarra taldeko arduradunak. Emakumeetan Bilbao Atletismo Santutxu taldekoak ikusten ditu faborito. "Ekartzen dituzten korrikalariak ekartzen dituztela, aurrean ibiliko

Azken urteetan gazteen parte hartzeak gora egin duela nabarmendu dute probako antolatzaileek

dira. Joan zen asteburuan, esaterako, beteranoen Bizkaiko kros txapelketan aurreneko hiru sailkatuak talde horretakoak izan ziren".

Gaztetxoen mailetan parte-hartzaileen kopuruak gora egin duela azpimarratu du Munitxak. "Azken urteetan gazteen kopuruak gora egin du. Egon zen sasoi bat mutilak baino neska askoz ere gehiago zebiltzana, baina azken aldian kopurua parekatu egin da", adierazi du.



Bilbotik Elorriora ekarri dute aurtengo emakumeen Bizkaiko Xake Txapelketa

XAKEA • J.D.

Domekan emakumeen Bizkaiko Xake Txapelketa lehiatuko dute Elorrioren. 10:00etan Kirol Etxean batuko dira partaideak.

Hainbat urtez Bilbon antolatatu den txapelketa Elorriora eramango du aurtengo Bizkaiko federazioak, Zaldi Baltza xake taldeak horrela eskatuta. Orain pare bat hilabete, Elorrioren antolatutako emakumeen xake torneoak harrera ona izan zuen, eta horrek bultzatu ditu federazioa eskaera egitera. "Torneoak harrera ezin hobea izan zuen. Gure helburua emakumeen xakea sustatzen jarraitzea da", adierazi du Zaldi Baltza taldeko Aitor Arabiotorrek.

Hurbiletik



DABID GARCIA GIL

Krosa

Azken urte bietan bererik eman ezinda ibili da Dabid Garcia, hankako lesioengatik. Baina sekula ere ez da izan etsitzen duen horie-

"Pare bat urtean hankako minagaz ibili ostein, orain motibazio itzelagaz nabil"

Hankako minak ahaztuta, Bizkaiko kros txapelketa hirugarrenez irabazi gura du Garciak

takoa eta bueltan da. Min denak alde batera utzita, inoiz baino gogotsuago entrenatzen dabil eta emaitzak heltzen ari dira.

26. amaitu duzu Elgoibarko kros prestigiotsua. Pozik emaitzagaz?

Bai. Azken hileetan asko entrenatzen nabil eta lasterketetan igartzen da. Zornotzako krosa nahiko ondo egin nuen eta horrek konfiantza eman zidan. Elgoibarko la-

nagaz ere oso gustura nago. Emaitza oso ona da. Korrikalari askok eta munduko onenetarikoek parte hartzen dute. Euskaldunen artean, Iban Fernandez baino ez zen sartu nire aurretik. Fernandezek hamar bider irabazi du Euskadiko txapelketa. Gainera, oso gertu izan nuen, 13 segundotara.

Gogotsu zabilta, beraz.

Pare bat urtean erdi lesionatuta eta hankako minagaz ibili naiz. Orain

ez dut bat ere minik eta motibazio itzelagaz eta gogor entrenatzen arin naiz.

Bigarren gaztaro batean zaude?

Hainbeste denbora gustura ibili ezinik egon ostein, orain motibazio berezi batez nabil berriro. Inoiz baino gehiago entrenatzen nabil azken hilabeteetan eta emaitzak ere inoiz lortu ditudan onenetakoak dira. Ea horrela jarraitzeko aukera dudan.

Berrizen txapela irabaztea izango da helburua?

Borrokan ibili gura dut. Oier Ariznabarreta ere hor egongo da. Zornotzan hortxe ibili ginen, baina ni aurretik. Berrizko zirkuitua, ordea, beretzat da aproposagoa. Gogorra da eta bera ni baino ohituago dago mendian ibiltzera.


Durangaldea Running-ek etorkizun politoko korrikalariak ditu. Berrizen zer egin dezakete?

20 urtez azpikoan Jon Cabada eta Jonan Bilbao onenekin borrokan ibiliko dira. Nesketan, Aritz Villa eta June Arbeo oso indartsu daude eta 23 urtez azpikoak izanagatik seniorretan ere irabazteko edo, gutxienez, podiumerako lehian ibiliko dira.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxe: 946 205 194

**ETXETXO**
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

**AMBOTO**
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

**Inmobiliaria**
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

**Fernando Uribe**
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//AUKERA
ABADIÑO. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, despentsa, egongela handia eta ganbara. **149.000€.**
AUKERA. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, ganbara eta garajea. **135.000€**
IURRETA. 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela, berogailu sistema eta igogailua. **97.000€**
SAN FAUSTO. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela. Dena kanpora begira. **85.000€**
DURANGO. 2 logela, bainugela, sukaldea, egongela, berogailu sistema eta igogailua. **130.000€** neg.

//ETXEBIZITZAK SALGAI
SAN IGNACIO. BERRIA. Logela, bainugela, sukaldea, egongela eta terraza. **265.000€** (ALQ/ VTA.)
BIDEBARRIETA. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela handia, terraza, berogailu sistema eta igogailua. Eguzkitsua. **145.000 €.**
ASTEPE. Pisu altua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela, terraza, trastelekua eta garajea itxia (2 autoentzat). Eguzkitsua eta dena kanpora begira.
ANDRA MARI. 100m. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela handia. Garajea aukeran.
MENDIZABAL. 2 logela, bainugela, sukaldea, balkoia, egongela handia eta ganbara. **186.000€**
TABIRA. 3 logela, bainugela, sukaldea, despentsa, egongela, terraza, ganbara. Eguzkitsua. Dena kanpora begira. **190.000€**
M. TORRE. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, terraza, ganbara eta garajea. **295.000€**
J. ICIAR. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, terraza. Eguzkitsua. Dena kanpora begira. **122.000€**
ZABALE (Ask. Etorbidea). 3 Hab. Baño. Cocina. Salon. Terraza. **170.000 €**
ERROTARITXUENA. Apartamentua. Dena kanpora begira. Terraza. Garaje itxia. **220.000€.**
ANBOTO. Azken solairua, 3 logela, bainugela, egongela, balkoia. Hegoaldera begira. **180.000€**
A. MEABE. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela terrazarekin. Ganbara. Garaje itxia. **260.000€**
MENDIZABAL (ALLUIZ).126m. 4 logela. 2 bainugela, egongela, sukaldea, esekitokia, ganbara eta garaje itxia. **295.000€.**
IURRETA. 111m. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela handia, terraza 12m2koa, trastelekua eta garajea. **276.000€**
BERRIAK ESTREINATZEKO. 3 logela, 2 b ainugela, sukaldea, esekitokia, egongela, terraza eta ganbara. **153.000€**
BERRIZ. ETXE RUSTIKOA. Familiabakarra. 3 solairu. **195.000€**
MATIENA. LAUBIDETA. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, 2 terraza, ikuspegiak, eguzkitsua.
LANDAKO ETORBIDEA. 3 logela. 2 bainugela. Sukaldea. Egongela. Terraza. Ganbara. Ganbara. Garajea aukeran. **196.000€**
ZALDIBAR. Iturrioz. 3 logela. Bainugela. Egongela. Terraza. Igogailua. **129.000€**
BERRIZ. 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela, terraza. **65.000€**
ZALDIBAR. 2 eta 3 logelakoa. Eguzkitsua. Dena kanpora begira. Berriztatua. **99.000€**
F.J.ZUMARRAGA. 130m. 3 logela.(bat bikoitza.) 2 bainugela, sukalde-jangela. Egongela. 2 terraza. Ganbara. Garaje itxia bi autorentzat eta trastelekua (aukeran). **285.000€**
MADALENA. Duplex egiteko aukera. Azken solairua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela eta garajea. ORAIN: **260.000€**
J.A. AGIRRE: Azken solairua. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela terrazarekin. 2 ganbara. Garajea.
//LOKALAK SALGAI ETA ALOKAIRUAN
ARTEKALE: 100m2. Etxebizitza egiteko aukera. **83.000€**
LOCAL INVERSION. 50m 2 . EGOKITUA. **85.000€.**
DURANGO. TABERNA martxan. 95 m2. **138.000€**
ZALDIBAR. Salmenta. Ganbara zabala. Egokia bulegoa eta estudioa izateko. 24-35 m2. EKONOMIKOA.
F.J. ZUMARRAGA. AUKERA. 114 m 2 . SALMENTA **150.000€**(Negoziagarri)
IBAZABAL. 50 m2. Guztia jarrita. SALMENTA / ALOKAIRUA. **500€.**
ASK. ETORBIDEA. Garaje ITXIA. **18.800€**

//ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN
DURANGO. Bi, eta lau logelako etxeak alokairuan. Hilean **750€**-tik hasita.


//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Eraikin berria. Logela hiruko, azken etxebizitza salgai. **200.000.-€.**
DURANGO. Komentukale. Pisu ederra, hiru logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela, eta ganbara. Bista ederrak
BERRIZ. HIRU LOGELAKO PISUA. KOMUNA ETA EGONGELA. GANBARA ERE BADU. OSO EGUZKITZUA ETA MERKEA.
DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbararekin.
IURRETA. Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.
DURANGO. Hegoalde kalean, izugarrizko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobe.
LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.
ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin eta egongela.
ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.
//LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitzeko baimenarekin. Zonalde egokia.
BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.
IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.
ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitzeko lursaila, 1.000m2. Informazio pertsonalizatua.
AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitzeko lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
ABADIÑO. BIFAMILIARRA SALGAI. 4 LOGELA, HIRU KOMUN, SUKALDEA, EGONGELA, GARAJEA OSO POLITA
ATXONDO. MARZANA. IZUGARRIZKO TXALETA SALGAI IKUSPEGI BIKAINA, BERRI BERRI!!!
MAÑARIA. Izugarrizko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.
ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berriztatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000€
ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan,15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.
BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobe, Anbotora begira.
MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berriztatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeko.
BERRIZ. Baserri ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan
//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.
//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde zaharrear, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com


**IURRETA**
3 solairu
335 m²
ARRIANDI AUZOA. Guztiz berriztatuko baserria, kanpotik eta barrutik. 335 m2, 3 solairutan banatuta, 400m2 lursorua.
650.000€

**BERRIZ**
3 solairu
240 m²
ANDIKONA AUZOA: Familia bakarreko 240 m2ko etxea, 3 solairutan banatuta. 10.000m2 lursoruan kokatuta.
449.000€

**DURANGO**
3 logela
2 komun
ZABALE: Guztiz berriztatua, egongela, hall-a, sukaldea, 3 logela, 2 bainugela berriak eta balkoia. Garaje handia.
350.000€

**DURANGO**
3 logela
86 m²
ANDRA MARI: Eraikin enblematiko baten kokatutako etxebizitza eskusiboa. Egoera onean. 3 logela, egongela, sukaldea jarrita eta bi bainugela.
285.000€

**DURANGO**
3 logela
2 komun
SAN IGNACIO: 83 m2 + balkoia. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea jarrita eta egongela. Trastelekua eta garage itxia elkarbanatua. Igerileku komunitarioa.
258.000€

**BERRIZ**
4 logela
119 m²
MARGATA MATURANA.119m2. 4 logela, egongela, sukaldea jarrita, 2 bainugela eta komuna. 30m2 terraza. garajea eta trastelekua..
267.800€

//DURANGO
ALLUITZ KALEA 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **295.000€** / E.E.Z =E
ANDRA MARI 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua. LEHEN 250.000 **ORAIN 230.000€** / E.E.Z =F
ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000**/E.E.Z=F
ERRENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. LEHEN 210.000 € **ORAIN 190.000€**/ E.E.Z=E
ERRENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. **205.000€**/E.E.Z=E
EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. **321.500 €** / E.E.Z=F
KOMENTUKALE Logela 1, sukalde-egongela, bainugela, ganbara eta igogailua. **186.000€**/E.E.Z=F
KURUTZIAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **99.000€** / E.E.Z Bidean
MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ **ORAIN 260.000€** / E.E.Z= E
MONTEVIDEO 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta, igogailua. **219.000€** / E.E.Z= F
MURUETA TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **288.000€** / E.E.Z=E
PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. LEHEN 260.000 €/ **ORAIN 245.000€** / E.E.Z=E
SASIKOA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 komun, ganbara eta garaje itxia **259.000 €**/ E.E.E=E
ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN **150.000 €** / **ORAIN 130.000€**/ E.E.Z = E
ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000€** /E.E.Z=E
//LURZORU ERAIKIGARRIA
SANTIKURUTZ KALEA Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeke 600m2ko lur-sorua. **640.000€**
//ABADIÑO
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.Z Bidean
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **175.000 €** / E.E.Z=E
ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **309.000€** /E.E.Z=F
//BERRIZ
ANDIKONA AUZOA Berreraikitzeke baserria. **460.000€**
BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000€**/E.E.Z=F
ELIZONDO AUZOA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. LEHEN 142.000 € / **ORAIN 137.000€** E.E.Z= G
ERROTATXO KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. LEHEN 95.000€/ **ORAIN 85.000€** E.E.Z=E
OLAKUETA PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 2 balkoi. **135.000 €** / E.E.Z= G
//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. LEHEN 189.000 €/ **ORAIN 179.000 €** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.
IURRETA
AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, terraza, igogailua ganbara eta garajea. **276.000€** / E.E.Z= E
ZUBIAURRE KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. LEHEN 100.000€/ **ORAIN 97.000€**/ E.E.Z=E
//OTXANDIO
GOMILAZ AUZOA Baserria lurzoruagaz, **350.000€**
ARTEKALE 2 logela, sukaldea, office, egongela, bainugela, balkoia. **75.000€** / E.E.Z=E
//BERRIAK
DURANGO-Errentxu kalea: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia, igogailua eta garaje itxia. **225.000€**/ E.E.Z=E
DURANGO - Anbrosio Meabe: 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, ganbara eta garaje itxia. **265.000€** / E.E.Z=E
BERRIZ-Bilbo etorbidea: 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 komun eta balkoia. **195.000€**/ E.E.E=E
IURRETA-Fauste: Baserria lurzoruagaz, **220.000€** / E.E.Z=G
MAÑARIA-Ebaristo Bustintza Kirikiño: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara eta txokoa **180.000€** / E.E.E=Bidean
OTXANDIO-Elizabari: 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja **106.000€** / E.E.E=F
ZALDIBAR-Zaldia elizateko plaza: 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta trastelekua **150.000€** / E.E.Z=G

Estetika gida

anboto

Ile-apaindegia



NUKLEO
ileapaindegia

946 582 996
Nizeto Urkizu, 14 behea
ELORRIO

Ile-apaindegia



I U N I K
ILEAPAINDEGIA

Antso Estegiz, 1
DURANGO
Tel.: 946 216 491

Ile-apaindegia



Salón de belleza
Mª Jesús Luque
UNISEX ILE-APAINDEGIA

✉ Kurutziaga kalea, 9 - DURANGO
☎ 946 81 43 89

Belardenda eta dietetika

OSASYN - ETXEA
BELAR-DENDA eta DIETETIKA
40 urte baino gehiagoko esperientzia

OSASUNA ONGIZATEA
COACHING NUTRIZIONALA
SENDABELARRAK
AHOLKULARITZA PERTSONALIZATUA

Ermodo kalea, 13 (Madalena galeriak) - DURANGO
☎ Tel.: 688 730 694-osasunetxea@hotmail.com
f Herboristeria Osasun Etxea



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Aurkezpena

Ana Aranzabal

OSASUN ETXEA | Orain 40 urtetik gora, 1976an, zabaldu zituen atearik Osasun Etxea belar-dendak, Emilia Arrietaren eskutik. Gaur egun, bere alaba naizen honek zuzentzen dut, Mamen eta Ainhoa lankideekin batera.

Gure helburua beti izan da bezeroari laguntzea, bere arazoari soluzio bat ematea eta pozik irtetea dendatik. Gure ustez, pertsona zaintzea ez da berari zerbait ematea sintomak eta kasu indibiduala kontuan hartu barik. **Bezerao uneoro protagonista** izan behar da, eta soluzioa bere barnean ere badagoela izan behar du buruan. **Gorputza oso jakintsua da**, eta eskertu egiten du behar bezala zaintzen dugunean eta sakrifizioak egiten ditugunean. Gorputza entzuten ikasiko bagenu, guztia errazagoa litzateke.

Gure iritziz, **osasunaren hiru zuta-beak dieta, ariketa eta atsedena dira**, eta Gabon osteko hau sasoi ona da ahalegina egiteko.

Animatu zaitetz gurerara! Etorri zaitetz, telefonoz deitu edota whatsapp zerbitzutik idatzi! Zu ezagutzeko irrikaz gaude.



hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#salduenak



BIZITZEA EZ AL DA OSO ARRISKUTSUA?
Joseba Sarrionandia
Pamiela



GURE OROITZAPENAK
Joseba Sarrionandia
Elkar




FAKIRAREN AHOTSA
Harkaitz Cano
Susa

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK




Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez 'ANBOTO' kontuan sartu eta egin klik 'HASI' botoian



Anboto komunikabideak
@anboto
@anboto



Botikak	
BARIKUA, 18 - 09:00-09:00	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-22:00	ASTELEHENA, 21 - 09:00-09:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
ZAPATUA, 19 - 09:00-09:00	09:00-22:00
DE DIEGO INTXAURRONDO 22. - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
09:00-13:30	MARTITZENA, 22 - 09:00-09:00
MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO	BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO
UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO	09:00-22:00
CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO	EGUAZTENA, 23 - 09:00-09:00
NAVARRO Artekaleara 6 - DURANGO	BALENCIAGA Ezkurdi plaza 8 - DURANGO
LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
EGUREN, ISABEL Trañabarren 15. - ABADIÑO	09:00-22:00
IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA
MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA	EGUENA, 24 - 09:00-09:00
09:00-14:00	UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO
IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA	IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA
09:00-22:00	09:00-22:00
SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO	SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO
DOMEKA, 20 - 09:00-09:00	SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Eskela

Rosario San Millán Gutiérrez

Eskerrik asko bihotz-bihotzez zurekin partekatu dugun guztiagatik.

Landako Eskola

Zorion Agurrak

GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu** zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion agurrarekin batera.

Urtea hasteaz batera aita-alaben urtebetetzea ospatzeko garaia heldu da gure etxean. Zorionak **Igor, Intza** eta **Iratzi**, jarraitu Inhar eta amatxon egunak alaitzen. Pila pila maite zaituztegu, musu potolo potoluek!

Zorixonak, **Katrin**, gure sorgintxue. Sei urte potolo bete dozuz dagoeneko, sei mosu pottolo ba zureztat, Lur, Xuban, ama, aita, amama eta aittitteren partez. Askio maitte zaittugu prexioxa"

Zorionak, **Xuban**, maittie. Dagoeneko bi urtetxo bete dozuz. Jarraitu gure egunetako izar disdiratsue izeten. Mosu tortila bat!

Zorionak, **Aratz!** Urtarrilaren 13an 11 urte egin ebazan. Oso ondo pasau genun zure egunien. Muxu handi bat etxekuen partez.

Zorionak, **Milaren** urtegune izen zan. Zorixonak, amama!

Datorren astelehenean 9 urte beteko dituzu, eta zurekin ospatuko dugu. Muxuak eta pottak etxekoan partez. Ondo pasa zure eguna!

Argik eta **Iraidek** urtarrilaren 11n ospatu dabe urtebetetze egune. Zorixonak!

Zorionak, polit hori! Jada 9 urte bete dituzu gure artean. Besarkada handi bat maite zaitugun guztion partez, laztana!

Abenduaren 25ean **Oihan** Estankonak 8 urte bete zituen! Oso ondo pasatu genuen! Musu eta besarkada pillo bat etxeko guztion partez!

Bizipozagaz eta irriparriaz bete dozuz 9 urte. Maite zaittugunok zeuri begire geratzen gara urtute.

“Asierren Eguna egin ostean, konturatu gara badirela Asier gehiago Iurrettagaz lotura zuzena dutenak”

Joan zen urtarilaren 5ean, 11 lagun elkartu ziren lurretan Asierren Eguna ospatzeko. 21 Asier batzen dituen WhatsApp taldea sortu dute eta lagun gehiago batuko direla uste dute

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

**Zituzten itxaropen guztiak soberan bete zituzten. lurretan antolatutako Asierren Egunak 11 lagun batu zituen. Gazteenak 24 urte zituen, eta zaharrenak, 46. Errepikatzeke esperantza dute, eta Asier izena duten guztiak izango dira ondoetorriak. Durangaldeko Asierren Eguna antolatzeak nahikoa burukomin sortu dezake, baina pentsatzeko moduko kontua dela uste dute Asier Vera-
k eta Asier Otadui-
k.**

Itxura batean pentsa daiteke Asier baino Mikel gehiago daudela lurretan...

A. Otadui: Ez dakit ba... nik ez dut Mikelik ezagutzen. Asier gehiago gara, seguru!

A. Vera: Nik neuk ere ez.

Nola sortu zen Asierren Eguna?

A. Otadui: Ezkontza batetik beste ezkontza bat irteten dela esaten dute, eta parranda batetik beste parranda bat. Bada, horrela sortu zen dena. Esan behar dugu hirugarren burua falta dugula hemen, Asier Totorika *Toto*. Elkartzen ginen guztietan irteten zen gaia: denok Asier garela eta zerbait egin behar genuela. Iaz, San Migel egunean sortu genuen Asierren WhatsApp taldea, txosnetan, eta hortik bururatu zitzagun Asierren Eguna antolatzea.

Zenbat zarete taldean?

A. Otadui: Momentuz, 21. Hala ere, Asierren Eguna egin ostean, konturatu gara badirela Asier gehiago Iurrettagaz lotura zuzena dutenak: bertan bizi direnak, bizi izan direnak... Taldea handituko da, seguru.

Asierren Egunean erdiak behintzat batu zineten. Nola joan zen eguna?

A. Vera: Oso ondo. 11 batu ginen. Azken momentuan, bi ezin izan ziren etorri, lan kontuengatik.

‘Asier eta kitto!’ zioten txapak atera zenituzten, eta pegatinak ere bai...

A. Otadui: Bai, *merchandising* guztia egin genuen. Baten batek erreparoa izan zuen txapa jartzeko, baina, azkenean, denok ipini genituen. Pegatinak herrian zehar jartzeko atara genituen, apur bat zirikatzeke. Bazkalostean, errege koroekin irteten ginen kalera, egunak ere hala eskatzen

zuen-eta. Durangon amaitu genuen eguna, errege koroa eta guzti.

Inork Asier deituta, denek erantzuten zenuten?

A. Otadui: Bai! Askok umeak ziren gainera, jakin bazekiten-eta denok Asier ginela. Ea denok Asier ginen galdezka etorri zenik ere izan zen.

A. Vera: Durangon ere baten batzuek bazuten

Asier Eguna-ren berri, eta guri deitzean denok erantzuten genuen.



Asier Vera Txurruka

(1989)

Asier Otadui Aiesta

(1973)

Asierren Egunaren antolatzaileak
Iurreta I

Parranda giroan sortutako istorioa da orduan...

A. Vera: Bai. Beste Asier batzuekin berba eginda geunden, baina ezer ere lotu barik. Kontu guztia mugitzeko, Asier Otadui esatea pentsatu genuen, eta hala egin zuen.

A. Otadui: Parranda egiteko aitzakia izan da Asierren Eguna. Bigarren bat antolatzen bada, beste parranda bat egiteko izango da.

Orduan, bigarren Asierren Eguna egiteko asmoa duzue?

A. Vera: Badugu esperantza! Animatuta dago jendea. Etortzerik izan ez zuten batzuk ere gogotsu daude, eta udaberrirako beste Asierren Egun bat antolatzeko eskatu digute.

Abizen bera dutenak elkartzen ikustera ohituta gaude. Ez hainbeste izen bera dutenak. Aurrekaria sortu duzuela uste duzue?

A. Otadui: Baliteke! Entzun diot inori ideia botatzen: “Eneko izenekook ere elkartuko gara. Bagaude hiruzpalau!”. Egun kurioa da. Beti ezizenez ezagutu izan dugun hori ere Asier dela Asierren Egunean jakin dugu. Broma artean, emakumerik ez zegoela-eta Asierren eta Amaia eguna antolatu beharko genukeela bota zuen norbaitek...

Iurretakoak zarete denok? Onartuko duzue beste herriren bateko Asierrik zuen taldean?

A. Vera: Bai! ez dugu inor baztertzen.

A. Otadui: Durangon bizi diren iurretarrak, Iurretako eskolan ibilitako durangarrak... batu ginenok zelanbaiteko lotura dugu Iurrettagaz. Durangaldeko Asierren Eguna antolatzea falta dugu! Pentsatzeko modukoa da!

Zuen ondorengoei Asier izena jarriko diezue?

A. Vera: Semea ez dut uste Asier izena jarriko diodanik, igual lagun baten batek jarriko dio... ikusteko dago!

A. Otadui: Nik neuk ez diot jarraitu!

Lau hortza

Alina
Ahtamon
Medikua



Urteak pasa ahala, alferrago sentitzen naiz

Atzo, lan egiten dudana eta isolatuta dagoen Txileko herri txiki honetan, 86 urteko emakume bat izan nuen paziente. Emakumeak infekzio txiki bat zuen eskumako oineko azazkal batean. Lehenik eta behin, anestesia apur bat jarri nion eta minutu batzuk itxaron behar izan nituen anestesiak bere efektua egin zezan. Bitartean, adineko emakume horrekin hitz egiten hasi nintzen. Alarguna dela kontatu zidan, 7 ume izan zituela, horietako 3 hirukiak direla eta orain bakarrik bizi dela, bere

86 urteko emakume bat izan nuen paziente. Emakumeak infekzio txiki bat zuen

Zahartzen ikasi behar dugula uste dut, eta gure nagusiak baloratzen eta zaintzen

seme-alaba guztiek euren familiak dituzte eta. Hala ere, egunero-egunero bere baratza eta animaliak zaintzen dituela esan zidan eta horrek oso lanpetuta mantentzen duela. Anestesiaren eraginpean, baina nik azazkalean bisturia sartu baino lehen, emakumeak hitz hauekin laburtu zuen bere istorio polita, gaztelaniaz: “*Tanto que he hecho en mi vida y ahora ya no sirvo para nada, soy una inútil*”. Izoztuta geratu nintzen, hori zergatik esaten zuen ulertu ezinda. Dena dela, ez da esaldi hori entzuten dudana lehenengo aldia. Zahartzen ikasi behar dugula uste dut, eta gure nagusiak baloratzen eta zaintzen.

DURANGO KABILDUOSTE

Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona** eskusiboan, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitez!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.

www.sukia.com